goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-01-28
EGUBAKOITZA
450. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Ia-ia erabateko geldialdia




Sindikatuak pozik jasotako erantzunarekin; arratsaldean manifestazioa izan zen Arrasaten | 4



Berdintasuna lantzeko liburuxkak egin ditu Bergarako Udalak | 16

Euskaraz ez egitearen arrazoiak ikertu ditu AEDk | 12



Iñaki Nafarrate, Arabako foru diputatuarekin elkarrizketa | 8



# Gosaria, eguna ondo hasteko bizigarria

Debagoieneko lau ikastetxetan gosari osasungarriak nola egin erakutsiko die Bihotz Bizi elkarteak 5. mailako ikasleei | 5

**Bergarako San Martin ikastetxeko umeak gosaltzen.**

MONIKA BELASTEGI

# Gutxienez beste hilabete bat Aramaioko errepide barik

- Adifek esan du otsail bukaeran irekiko dutela
- Hilaren 31n beteko da urtebete lur-jausia izan zela | 3

## Hondakina ardatz azoka iraunkorrean



Eskoriatzan egingo dute azoka datorren aste bukaeran | 11

## Asobaleko taldeen partidua bihar Oñatin

Lagunartekoa jokatuko dute Arratek eta Valladolidek | 28

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ikastolenelkartea

Deba bailarako ikastolak




MATRIKULA EPEA ZABALIK
URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa
943 76 90 71
www.aranzadiikastola.org

Arizmendi ikastola
902 11 20 25
www.arizmendi.eu

TXANTXIKU IKASTOLA
943 78 12 04
www.txantxikuikastola.net

# Gutxienez beste hilabete bat pasako da Aramaioko errepidea ireki arte

## Zubia bukatuta dago, baina errepidea guztiz segurua izan arte itxita jarraituko du

LEIRE KORTABARRIA | ARAMAIO

Aramaioarrek eta Aramaiora joateko ohitura duten gidariek pazientzia handiagoa beharko dute, A-2630 errepidea berriz erabili ahal izateko beste hilabete bat falta delako, gutxienez. Udalak Adif enpresa publikoaren oharra jaso du oraingo astean, data berri bat emanaz: otsail bukaera. Beste behin atzeratzen da lehen esandakoa: abendu bukaera, urtarrila, otsailaren 4a… hainbat data eman izan dira. Errepidea ixtera behartu zuen lur-jausia urtarrilaren 31n gertatu zen, eta oraindik itxita dago.

Martin Arriolabengoa Aramaioko alkateorde eta Hirigintza zinegotziak esaten duenez, obrak ondo doaz. Hala, kaltetutako errepidearekiko paralelo, errekaren bestaldetik, egitekoak ziren pasabide bat, eta dagoeneko hura eginda dago, horretan ere zenbait aldiz atzeratu arren lanok –besteak beste, urrian zubi hori egiteko zekarten habe bat apurtu egin zen–. Hala ere, oraindik ez dute ireki: "Foru Aldundiak bidea ondo egon dadin nahi du, eta segurua dela bermatu nahi du. Horregatik, esan digute dena behar den moduan egon arte ez dutela irekiko". Bizilagunak irrikatan daude: "Herritar batzuek esaten digute erabiltzeko moduan dagoela, bukatuta dagoela eta ea zergatik ezin diren ibili; baina oraindik zubia gogortu egin behar da, babesak ipini behar dira…".

**"Gau eta egun dabiltza"**

Herritarrok haserre jarraitzen dute, baina, aspaldian, atsekabea igartzen zaie gehien: "Ohitu egin gara eta dagoeneko kexa askorik ere ez dugu entzuten. Herritarrok bakarrik galdera bat daukate: noizko?", esaten du alkateordeak.

*Noizko* galdetzen dute gidariek, herritarrek eta auzotarrek; denak, nekatuta eta gogaituta hasieran behin-behineko zirudien plan batekin: errepide nagusiaren partez, pasa behar izatea Aramaioko auzoetatik pasatzen den errepidetik –estua, puntu askotan errail bakarrekoa, erreboltaz josia, zorua urratuta edo petatxuz estalia. "Hasieran, pentsatzen genuen hilabete pare bateko kontua izango zela; baina oraindik hemen gaude", zioen gidari batek Untzillatik jaisten.

Untzillan, Ibarran, Azkoagan eta Zabolan bizi direnak ere "aspertuta" daude, Zabolako Jose Luis Lasagak esaten digun moduan: "Gau eta egun autoak ibiltzen dira. Ordu jakin batzuetan, Arrasateko Fagorreko irteera-orduan, adibidez, sekulako zirkulazioa sortzen da. Traktorearekin ibiltzeko oso txarto gaude, denbora guztian zaintzen ibili behar dugulako".

Udalak badu Aldundiari kalte-ordaina eskatzeko asmoa, eta herritarrek ere izan dute burutazio hori. Auto-gidari aramaioar batek zioen moduan, herritarrek merezi dute, erakutsi duten pazientzia eta jokabide onagatik besterik ez bada: "Auzotarrok eta herritar guztiok merezi dugu".



A-2630 errepidea, bide bat itxita duela; harantzago, guztiz itxita dago. | LEIRE KORTABARRIA

### ESANAK

**"Ez da kexa askorik entzuten; 'noizko' da herritarrek galdetzen duten gauza bakarra"**

MARTIN ARRIOLABENGOA | ALKATEORDEA

**"Fagorren irteera-orduan sekulako zirkulazioa ibiltzen da auzoan; aspertuta gaude"**

JOSE LUIS LASAGA | AUZOTARRA


L.K.

MARTIN ARRIOLABENGOA
HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

## "Bide guztietatik eskatuko dugu kalte-ordaina"

Hirigintza zinegotzi eta alkateorde Martin Arriolabengoak dio kalte-ordain bat eskatuko diotela Foru Aldundiari.

**Zelan joan da urte hau?**

Traba handia ekarri du herritarrendako: lehen bost minutuan egiten zen bidea orain askoz luzeagoa da, eta horrek dakar gastua, arriskua… Buruhausteak ere Udalarendako, eta herriko negozio eta tabernendako, galerak izan dituztelako. Udalak kalkulua egin du eta milioi euroko kalteak izan direla uste dugu.

**Zein da errepideko arduraduna?**

Konpontzeko lanak Adif egiten dabil, baina ardura Foru Aldundiarena da. Kalte-ordaina hari eskatuko diogu. Ikusiko dugu ematen diguten edo ez, baina bide guztietatik eskatuko dugu.



**JUANJO PECIÑA**
ITURRIETAKO UGAZABA

"Iaz denboraldi osoa eman genuen errepidea itxita, eta igarri egin zen; Debagoieneko bezero askoz gutxiago izan genituen. Orain ere berdin hasi dugu, eta esaten digute beste hilabete luzatuko dela kontua. Nekatuta nago protesta egiteaz, ez digute jaramonik egin eta".



**JUAN MORALES**
BANATZAILEA

"Ordiziatik etortzen naiz, hemen hainbat bezero ditudalako. Bakailaoa eta beste jenero mota batzuk banatzen ditut. Orain buelta askoz handiagoa eman behar dut, eta gastu handiagoa ekartzen dit. Hortaz, gutxiagotan etortzen naiz, baina ez ditut hemengo bezeroak utziko".



**ARANTXA ALTUNA**
DENDARIA

"Herritar moduan eta dendari moduan parte hartu izan dut protesta ekitaldietan. Esan zuten 15ean irekiko zutela, gero otsailaren 4an, orain otsail bukaeran… Dendan, produktu batzuk faltan izaten ditut eta banatzaile batzuk ez dira gehiago etortzen".



**EDURNE ISAZELAIA**
DUKIENAKO UGAZABA

"Asko igarri dugu errepidea itxita egon izana. Batez ere, aste bukaeretan, gauetan igartzen da Arrasate aldetik jende askoz gutxiago etortzen dela. Guk ere egunero egiten dugu joan-etorria Arrasatera. Bukatzen dabiltzala dirudi, baina inoiz ez digute inongo azalpenik eman".

# Pentsioen erreformaren aurkako grebak erantzun zabala ibarrean

## Sindikatuetako ordezkarien arabera, geldialdia %100era hurbildu zen

**EDU MENDIBIL** | ARRASATE

Atzoko greba deialdiak Gipuzkoan izan zuen erantzunik zabalena eta Debagoienari dagokionez sindikatuetako ordezkariak pozik azaldu ziren gure ibarrean geldialdia ia-ia %100ekoa izan zelako. Atzo arratsaldean Arrasaten deitutako manifestazioaren aurretik horixe adierazi zuten LAB eta ELAko ordezkariek. Antolatzaileen arabera, 1.000 lagun inguru batu ziren manifestazioan. *Errespetatu herritarron eskubideak. Nahikoa da!* zioen pankarta erakutsi zuten pentsioen erreformaren aurka. Bukaeran, komunikatua irakurri zuten plazan.



Atzo arratsaldean Arrasaten egindako manifestazioko irudi bat. | MONDRABERRI

### Greba egun lasaia

Goizean goiz, bostak alderako, sindikatuetako pikete informatiboak ibili ziren ibarreko industrialde gehienetan, baita Ertzaintzako patruilak ere. Eztabaida batzuk izan ziren hainbat tokitan pikete eta langileen artean, baina ez zen istilu aipagarririk gertatu. Enpresa handi gehienek greba egin zuten eta txiki batzuk baino ez zuten lanik egin. Zenbait kooperatibaren kasuan, gehiegizko zerbitzu minimoak jarri izana salatu zuten sindikatuek. Mondragon Taldeko egoitza nagusira bidean, piketeak ziren goizeko lehen orduan, autoan lanera zihoazenei txistu eginez eta greba egitera deituz. Saltoki eta taberna ia denak ere itxita egon ziren. Arrasateko Eroski itxita bazen ere, Bergarako Leizeagako Eroski zabalik eta gauza bera gasolindegiekin: Musakolakoa itxita eta Bergaran zabalik Amillagakoa. Inguruan dagoen SuperAmara denda ere zabaldu zuen atzo eta baita IAT-ITVk.

### Zerbitzu minimoak

Debagoieneko Ospitalean langileen %16k egin du bat grebarekin, zuzendaritzaren datuen arabera. Kontsultetan eta kirofanoetan ez du eraginik izan. Bestalde, Debagoieneko anbulatorio eta kontsultategietan, normaltasuna izan zen nagusi. Bergaran eta Aretxabaletan, esate baterako, hainbat langilek greba egin zuten, baina funtzionamenduan ez zuen apenas eraginik izan.

Errepideetan ere nabaria zen graba deialdia. Ohi baino, ibilgailu askoz ere gutxiago goizean goizetik. Garraio publikoari dagokienez, Lurraldebusek eta Arrasateko urbanoak zerbitzu minimoak eskaini zituzten egun osoan zehar eta administrazioari dagokionez, Leintz Gatzagako udaleko langileak izan ezik, greba egin zuten ibarreko gainerako udaletxetan. Horrela, udal zerbitzu gehienak, kiroldegiak eta liburutegiak tartean, itxita egon ziren. Ikastetxe gehienak ere itxita; Mondragon Unibertsitateko langileek grebarekin bat egin zuten eta zerbitzu minimoak ezarri zituzten. Hotza, lasaitasuna eta grebaren erantzun zabala, horrela laburtu daiteke gure ibarrean grebak utzitakoa. Adegik, ohar baten bidez, Gipuzkoako langileen %72 atzo lanera joan zela adierazi zuen ohar baten bidez. Esan bezala, greba Gipuzkoan nabaritu zen batez ere. Patronalaren arabera, jarraipena ezberdina izan zen lantegi txiki eta handietan: "Eragin txikia izan du grebak lantegi txiki eta ertainetan; handietan, aldiz, eragin handiagoa izan du".


DEBAGOIENEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK*A

goieskola
www.goieskola.net

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

matrikulazio epea zabalik urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

etorri eta zuk zeuk ikusi

Guztion eskola guztion artean



HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH eta EPA

| IKASKETAK | INFORMAZIO BILERAK |
|---|---|
| **Aramaio** San Martin Eskola | |
| **Aretxabaleta** Kurtzebarri Eskola | Urtarrilaren 31n 17:30ean |
| | Urtarrilaren 25en 18:00etan EUSKARAZ / 19:00 GAZTELERAZ |
| Kurtzebarri BHI | Urtarrilaren 26an 18:00etan EUSKARAZ / 19:00 GAZTELERAZ |
| **Arrasate** Arrasate Herri Eskola | Bedoñabe: Urtarrilaren 31n 18:00etan<br>Musakola: Otsailaren 1ean 18:00etan |
| Arrasate Institutua | Arrasate: Otsailaren 1ean 18:00etan<br>Aramaio: Otsailaren 2an 18:00etan |
| EPA Arrasate HHE | |
| **Bergara** San Martin Agirre Eskola | Otsailaren 1en 18:00 etan<br>Ate irekiak Urtarrilaren 29an 16:30ean |
| Ipintza Institutua | Otsailaren 2an 18:30ean |
| EPA Bergara HHE | |
| **Elgeta** Herri Eskola | |
| **Eskoriatza/Gatzaga** Luis Ezeiza Eskola | Otsailaren 3an 18:00etan |
| **Oñati** Errekalde Herri Eskola | Urtarrilaren 29an 17:00etan |
| Zuazola Larrañaga Institutua | Otsailaren 3an 18:30etan |

# Errealitatearen azterketa kritikoa egin dute gazteek

Bagararen Herrigintza Gaztea ekimeneko bigarren saioa egin dute asteon Arrasaten

**M.B.** | ARRASATE

Bagara egitasmotik jaiotako Herrigintza Gaztea ekimeneko bigarren saioa egin zuten eguaztenean Arrasateko Emakume Txokoan. Gazte errealitatetik abiatuta, egungo gizartearen azterketa kritikoa garatu zuten 20 bat gaztek, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kideen laguntza izan zuten.

Lau esparru jorratu zituzten. Komunikazioa-komunikabideak atalean, herri proiektu integrala garatzeko komunikabide nagusien aurrean jarrera aktibo eta kritikoa garatzea eta komunikatzeko bide propioak eraikitzea ezinbestekotzat jo zuten. Bizi baldintza materialei dagokienez, gogorarazi zuten errealitatea "gogorra" dela, bereziki gazteondako, emakumeendako eta etorkinendako. Gizartearen antolaketarako eta haien beharrizanak bideratzeko bestelako ereduen gainean jardun zuten.

Kulturartekotasunaren gaia ere jorratu zuten. Euskal kultura bidelagun eta euskara komunikaziorako hizkuntza gisa kultura aniztasuna bermatuko duten guneak sortu beharko liratekeela aipatu zen; gazteetatik hasita, elkar ezagutu eta kultura transmisioa sustatu. Eta hezkuntzan, bestelako hezkuntza proiektuak kontuan hartzea erronka nagusienetakoa dela esan zuten.

Esan bezala, bigarren saioa izan zen eguaztenekoa. Urtarrilaren 12an hasi eta ekainaren 15era 12 saio egingo dira bi astean behin.



Eguaztenean Emakume Txokoan batutako gazteak. | MIRIAN BITERI

# Saharar herriaren alde egingo den maratoian eman daiteke izena

Otsailaren 28an izango da maratoia: 5, 10, 21 eta 42 kilometroko lasterketak izango dira

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

35 urte dirauen "Saharako herriaren aurkako errepresioa, okupazioa eta haren natura baliabideen espoliazioa salatzeko" antolatzen dute maratoia. Otsailaren 28an egingo dute; hain zuzen, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa eratu zeneko 35. urteurrenean –otsailak 27 da data.

Beste urte batzuetan ez bezala, aurten oso jende gutxik eman du izena maratoian. Antolatzaileek adierazi dute Saharan azkenaldian izandako istiluengatik izan daitekeela hori. Horregatik, argi utzi gura dute maratoia eta istiluak ez direla leku berean: "Istiluak lurralde okupatuan izan dira, eta ez kanpamentuetan, lasterketa egiten den tokian".

### Hainbat lasterketa

5, 10, 21 eta 42 kilometroko lasterketak antolatu dituzte, prestakuntzaren arabera aukera zabala eta irekia izan dadin. Irteeran 14 bat graduko tenperatura egingo duela aurreikusten dute eta amaitzerako, berriz, 22-26 gradu inguru izango da. Ibilbidean zehar ura, fruta eta datilak eskainiko dituzte. Informazio gehiago: *euskalsaharathoia@gmail.com*.

### Kamisetak salgai dituzte

Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarteek kamisetak jarri dituzte salgai. Helburua da Saharari laguntzea eta giza eskubideen alde egitea. 10 eta 12 eurotan daude salgai kamisetak.



Bergarako San Martin Agirre ikastetxeko umeak, gosaltzen. | MONIKA BELASTEGI

# Gosari osasungarriak egingo dituzte aurten bailarako lau ikastetxetan

Bihotz Bizi elkarteak gertatutako kanpaina Oñatiko Errekalden eta Elkar Hezin, Bergarako San Martin Agirren eta Arrasateko Santa Teresan egingo dute

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

Aurten ere gosari bihotz-osasungarrien kanpaina egingo du Bihotz Bizi elkarteak. Euskal Autonomia Erkidegoko 85 ikastetxetara iritsiko da. Debagoienari dagokionez, Oñatiko Errekalde eta Elkar Hezi ikastetxeetan, Arrasateko Santa Teresa Arizmendin eta Bergarako San Martin Agirren egingo dute sentsibilizazio kanpaina.

Oñatin, otsailaren 15ean Errekalde herri eskolan egingo da eta martxoaren 2an Elkar Hezin. Otsailaren 16an Bergarako San Martin Agirre ikastetxean; eta otsailaren 23an, Arrasateko Santa Teresan.

### Hitzaldia eta gosaria

Egun horietan, lehenik, informaziozko solasaldia jasoko dute 5. mailako eskola-umeek gelan, eta jarraian, esnea, kakaoa, eztia, indioilarra, fruta, ogia eta olioa dituen gosaria eskainiko zaie. Modu horretan, goizero behar bezala gosaltzeak duen garrantziaz haurrak jabe eta kontzientzia daitezen lortu nahi da. Horren harira, elkartearen presidenteorde de Conchi Rousselen esanetan, "elikadura egokia gosari egokiarekin hasten da eta haurtzaroa da, zalantzarik gabe, gosari egokiaren ohitura sustatzeko adinik egokiena".

Kanpainarekin batera, Bihotz Bizi elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultateak iazko edizioan parte hartu zuten 2.000 euskal eskola-umeri egindako inkesten emaitzak aurkeztu dituzte asteon. Jakinarazi dute kanpainak "eragina" izan duela eta hobekuntzak igarri dituztela umeek gosaltzeko orduan dituzten ohituretan.

2009ko ekitaldiarekin alderatuz, fruta-kopuruak gora egin du; gero eta ume gehiagok hartzen dute gosari osoa (fruta, esnea eta zerealak); moldeko ogi gutxiago hartzen da gosarietan eta gero eta oliba-olio gehiago erabiltzen da, gurinaren eta halako koipe saturatuen ordez.

### Bost minutu gosaltzen

Dena dela, gaineratu dute opilak hartzen dituzten umeen proportzioak handiegia izaten jarraitzen duela (guztien %40) eta inkesta bete zuten umeen %60k ez dutela esnekirik hartzen. Gainera, umeen %38,4k bakarrik konbinatzen dituzte behar bezala gosari bihotz-osasungarriaren osagaiak, eta heren batek 5 minutu besterik ez dio eskaintzen gosariari.

Kanpainak Euskadiko Okindegien Federazioa, Eroski, Auzo Lagun, Policlinica Gipuzkoa, Farmazialarien Euskal Elkartea eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza izan du.

**DATUA**

**%60**

UMEAK

Horixe da esnekirik hartzen ez dutenen kopurua.

**ESANAK**

**"Elikadura egokia gosari egokiarekin hasten da"**

CONCHI ROUSSEL | BIHOTZ BIZIKO KIDE

## Oñatiko Maylor enpresan sutea izan zen martitzenean

Garibai auzoko Maylor enpresako teilatuak su hartu zuen martitzenean. Suhiltzaileen sei kamioi joan ziren hara sua itzaltzera. Zorionez, inork ez zuen minik hartu. Langile batek GOIENAri aditzera eman zionez, konponketa lanetan ari zirela txinparta batek salto egin eta sua piztu zen, 15:15ean.

## Aurre-matrikula 'on line' egiteko aukera egongo da urtarriletik aurrera

*Hezkuntza.net* webgunetik aurre-matrikula egiteko aukera emango du aurten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Urtarrilaren 31tik otsailaren 10era arte izango dute familiek umeak aukeratutako ikastetxean eta hizkuntza ereduan aurre-matrikulatzeko. Hala ere, ikastetxean dokumentazioa entregatu beharko dute.

## Basque Culinary Center Madrilen izan da proiektua aurkezten

Madrid Fusion ekimenaren barruan egin dute aurkezpena. Basque Culinary Centerrek berrikuntza eta ikerketa sailaren aurkezpena egin du Madrilen, eta bere lan ildoak zeintzuk izango diren azaldu du. Irailean martxan jarriko den Gastronomia Zientzien Fakultatearekin batera egingo dute lan.

ZABALIK



**JUAN MARTIN ELEXPURU**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Marijustaren jaitsiera

Marijustaren jaitsierarekin hasi zien joan dan astian Uberako San Pauluak. Ez da Ubera gutxiago izango Gasteiz edo Bergara baiño, ze arraixo!

Idarraga basarrixan jaio eta bizi izan zan Marijusta Beiztegi. 1970 aldera hil zan. Oso emakume berezixa, mereziko leuke haren gaiñeko liburutxo bat idaztia, oinddio bizi da-eta ondo ezagutu zeban jentia.

Jaitsieraren aurretik, pregoia irakurri zan. Hemen zati batzuk: "Txoritxo batek kontau doskunez, zeruko atian ikusi dau Marijusta gaur atsaldian, laurak aldera, Andafuerako soiñekua jantzitta. Abarka-galtzakin, moiñua ondo ipiñitta, kotzaria besuan eta katxabia eskuan. Oso arpegi alegria ei zeukan. Lekaixo txiki batzuk be botatzen ei zittuan, eta *Abadiño San Blasetan* kantatzen zeban ahopian.

**"Madrillera be aillegautakua zan, behin baiño gehixagotan"**

San Pedro bajiakin dago, itxuria, gripiakin, eta San Paulo tokau da atezain, eta jakiña, Marijustak esan dotsanian Uberara nahi dabela San Pauluetara, ez ei dau bi aldiz pentsau, atia zabaldu eta 'ale!, ondo ibilli!' esan ei dotsa, eta bera be hutsagatik ez ei da estatan behera abixau Marijustarekin.

Geure kalkuluak etara dittugu eta estropozuren bat izan edo bidekurutzen baten galdu ezian, laster egon bihar dau hemen. Ez ei dakar GPSik eta holako asmaziñoik, baiña Uberako elizako kanpantorria ondo ezautzen dau, eta haren erlojuaren soiñua hobeto, auzuai berak erregalautakua dalako. Beste danak baino 25 urte lehenago deskubridu zeban turismua. Vergaresa hartu eta Plamplonara San Ferminetan; edo Donostiara Aste Nausixan. Madrillera be aillegautakua zan, behin baiño gehixagotan, gaiñera.

Autoestopa be goiz deskubridu zeban eta demostrau ez zala neska gaztia eta minifalderia izan bihar exitua eukitzeko. Etxoin, lelengo datorren kotxiai erdira urten eta, alto!, eskua jasota. Gora bazoian autua ba Elgetara, eta behera bazoian ba Bergarara. Konformidade onekua. Eta distinziñoik ez herrixen artian...".

USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | 'jiriondo@goiena.com'

# Juaristi zer?

Bai; sozialistek Zapateroren aholkulari Basagoiti izendatzea bezain normala; Fronte Polisarioak erakundeko buru Marokoko erregea; Obamak Defentsa idazkari Bin Laden; horiek bezain ulerterraza da Jaurlaritzak Juaristi izendatzea euskara aholkulari. Euskarak ez du hiltzen laguntzeko aholkurik eskatu. Noiz eta "askatasunarekin bat" egitekotan denean, ze...

Ez; ETA desagertuz gero euskarak eta euskaradunok ez dugu askatasun faltarik izango, gero ere ertzainekin –askorekin– euskaraz egiterik izango ez dugun arren, medikuari min non dugun gazteleraz azaldu beharko diogun arren, nonahi "háblame en cristiano" bezalakoak entzuten segitu beharko dugun arren.

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




GUTUNAK

# Foru eta udal hauteskundeen inguruan

**Enrike Letona**
(Arrasateko Ezker Abertzalearen izenean)
Arrasate

Udal hauteskundeetan egoteko borondate irmoa du Ezker Abertzaleak. Baina nahikoa al da borondatea izatea? Guztiok dakigu Euskal Herrian ez dagoela demokraziarik! Demokraziaren oinarria herria da eta soilik herritarrek erabaki dezakete zeintzuk izango diren beren ordezkariak instituzioetan. Baieztapen hau hankamotz gelditzen da gure herrian, jakina, Madrilen erabakitzen dutelako hauteskundeetan nor aurkez daitekeen.

Eztabaida luze baten ondoren Zutik Euskal Herrian egin beharreko urrats nagusiak finkatu genituen.

Egia da garai hartan herritarren arteko sektore batean mesfidantza pixka bat bazegoela, baina azken bi urte hauetan ederki asko erakutsi dugu bertan planifikatutako urrats guztiak bete egin ditugula.

Prozesu demokratikoa aurrera doa eta geldiezina da, denbora aurrera joan ahala ere, indar metaketa indartsuago da, oraindik badaukagu zer landu, baina baikorrak izateko arrazoiak baditugu. ETAk ere hasieratik bat egin zuen prozesu demokratikoarekin eta azken komunikatu labur eta zehatz honen bidez, fase politiko berriak ireki eta prozesu demokratikoan sakontzeko bitartekoak jarri ditu.

Alderdien mahaia indarrean ez jartzeko ez dago aitzakiarik. Ofizialki behin eta berriz esan digute komunikatu honetan ez dela ezer berririk esan, baina ezer berririk ez badago zertarako molestatu erregea enbaxadoreekin bilduta dagoenean? Zergatik Zapaterok egunerako planifikatutako guztia bertan behera utzi eta Moncloara doa? Zergatik etorri behar da korrika Ares Madriletik? Zergatik adosten dute PSOEk, PPk eta PNVk nola egin behar dituzten komunikatuaren ondorengo agerraldiak?

Herritarrek ederki asko ulertu dutelakoan nago jarrera horren sakoneko arrazoiak.

Legalizazioa ezinbestekoa da! Bai hauteskundeetan parte hartzeko, baina baita prozesu honek aurrera jarraitzeko ere.

Gauza asko daude jokoan eta guztiok daukagu asko irabazteko. Horregatik ezin da inor albo batean gelditu, bere burua demokratikotzat duen edozeinek Ezker Abertzalearen legalizazioa ozenki aldarrikatu behar du eta bidenabar, parte hartu honen aldeko ekintza guztietan. Dagoeneko Arrasateko Ezker Abertzaleko kideok hilabeteak daramatzagu udal hauteskundeetarako diagnostikoa egiten.

Arloz arloka banatutako 10 lantalde aritu gara lanean eta dagoeneko amaituta dago lan honen lehen fasea.

Lagun ugari aritu gara lanean, baina gure printzipio nagusienetariko bat herriak parte hartzea denez, diagnostikoarekin amaitzeko *Ezker Abertzaleko diagnostikoaren inguruko jardunaldiak* prestatu ditugu urtarrilaren 29rako Kulturateko Areto Nagusian, 10:00etatik 13:00etara. Jardunaldi hauetan lantalde bakoitzeko ordezkari batek egindako lana aurkeztuko digu eta ondoren talde txikietan bilduta aukera izango dugu ekarpenak egiteko.

Ezkerrekoa eta abertzalea bazara hurbildu zaitez; izan ere, gure proiektuan guztiok gara garrantzitsuak.

Zure ahotsa, gure hitza!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


GORDAILU BERRIA
KONFIANTZA 6
Inbertsioa eta lasaitasuna eskutik helduta doazenean.
5 aukera dituzu 6ra iristeko zeure kapitala %100 segurtaturik duzula.
Zoaz zeure bulegora eta konfiantza ukigai bihurtuko zaizu. Eta errentagarri.
Kutxa Inbertsio Irtenbideak
kutxa
zugandik zugana

**Iñaki Nafarrate** | Arabako Toki Administrazioko eta Lurralde Orekarako foru diputatua

# "Gure gobernuaren helburua izan da Arabatik ekartzea ahalik eta diru gehien Aramaiora"

▸ Araba osoa aldenik aldez bisitatu du agintaldi honetan Iñaki Nafarratek

▸ Diputatuak dio "oso pozik" daudela agintaldian Araban egindako lanagatik

ENEKO AZKARATE | ARAMAIO

Aramaio eta Arrasate arteko errepideak sortutako arazoez, Arabako EAJko kideen ustezko ustelkeriaz eta Arabako Diputazioan egindako lanez dihardu Aramaioko alkate izandakoak. Arabako Toki Administrazioko eta Lurralde Orekarako foru diputatua da.

**Zelan ikusten dira Gasteiztik, Foru Aldunditik, Aramaioko kontuak?**
Beste modu batera, jakina. Kontuan izan Aramaion Eusko Alderdi Jeltzalea egon dela gobernatzen urte askoan. Gure helburua izan da Arabatik ekartzea Aramaiora ahalik eta dirulaguntza gehien Aramaioko hainbat egitasmo aurrera ateratzeko.

**Oraingo astean urtebete da Cuatrovientosko maldan luizia gertatu zela eta Arrasate eta Aramaio arteko errepidea itxi zela. Haserre zaudete aramaioarrak.**
Bai. Oso esperientzia gogorra da. Ez dago eskubiderik 1.500 laguneko herri bat eta bertara joan-etorria egin behar dutenak urtebetez egoera horretan edukitzeko. Madrildik egiten diren lanak dira eta haien premiak ez dira Aramaio behar moduan komunikatuta edukitzea, baizik eta Lastertasun Handiko Trena egitea. Kaltea sortu duena Adif erakundea da eta hark ordaindu behar du kamino berria eginda. Zoritxarrez, Foru Aldundiak, lurraldeko errepideen konpetentzia eduki arren, kontu honetan ez dauka zartagin-kirtena eskutik. Guk esan diegu kamino berriak zelakoa behar duen izan, baina, osterantzean, dirua, epeak eta abar Adifek kudeatu ditu. Aramaioarrak oso haserre gaude.

**Dena den, lanak laster amaituko dira, ezta?**
Ez dago jakiterik. Aldundian, Errepideetako diputatuari galdetzen diot astero, baina azkenaldian data asko darabilgu mahaiaren gainean. Abendu amaierarako esan zuten lehenengo; urtarril amaierarako gero, eta orain otsailerako gertu egongo dela esaten dabiltza. Madrilgo agintariak ez dira batere sentiberak hemengo obrekiko.

**Aldundiak ez dauka, baina, errepideen eskumena Araban?**
Bai, eta, esan dudan moduan, baldintza teknikoak-eta hark jartzen ditu. Baina proiektua, Arrasatetik Aramaiora arteko errepidean, esaterako, Adif erakundeak egin du.

**Zer da zehatz-mehatz Aramaion egin den obra?**
Errepidearen trazatua aldatzen dabiltza luizia egon zen tokian. Errekaren eskumako ertzetik doa orain; hau da, lehengoaren beste aldean. Horretarako, bi zubi berri jarri dira eta luizia gertatu zen tokian, errekaren ezkerreko aldean, maldari eusteko, eskoilera handi bat egin dute.

**Lan horien kostua?**
Hasieran 12 miloi euro ziren. Obra osoa: Arrasate eta Aramaio arteko errepidea konpontzea eta Untzillara doana ere egokitzea. Baina diru aldetik zurrumurru txarrak entzuten dira, gauza onik ez.

**Agintaldia amaitzera doa, hurrengo hauteskundeak bistan ditugu. Ze balorazio egiten duzu Diputazioan egindako lanaz?**
Oso pozik gaude. Sentsazio onak dauzkagu eta inkestek diote gora goazela Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu guztietan eta, batez ere, Araban. Agintaldi honetan ibili gara herriz herri, udalez udal... batzorde administratibo guztiak bisitatu ditugu, astero -astero. Araban daude 375 batzorde administratibo eta 50 udalerri. Eta denetan izan gara, bertako jendearekin, entzun egin diegu, premiak aintzat hartu... Jendeak nahi du gure aurpegia ikusi, dituzten arazoak kontatu eta guk haiek entzutea.

**Toki Administrazioko eta Lurralde Orekarako foru diputatua zara. Zerk eman dizu buruhauste handien?**
Diruak banatzeko daukagun arauak, 1997. urtekoa delako. Arauak dio Foru Aldundiak eman behar dituela %80ko dirulaguntzak eta gainerakoa, batzorde administratiboak, baina, kopurua handia bada, askotan, batzorde administratiboak ez dauka horri aurre egiteko adina diru. Arau berria eta finantzazio modu berria onartu gura ditugu.

**Karguak eman dizu aukera lurraldea hobeto ezagutzeko, ezta?**
Koadrila batetik bestera ezberdintasun handiak daude. Esaterako, Arabako Errioxa oso ondo dago azpiegitura eta ekipamenduen aldetik. Baina, beste aldean, Añana Koadrilan, batzorde administratibo asko daude eta behar itzelak dituzte. Baina horiei aurre egiteko dirurik ez dutenez, ezin dituzte obrak aurrera atera. Mantentze-lanetarako ere premia handiak dituzte. Horregatik, foru arau berria egin behar da eta dirulaguntza bereziak behar dira atzeratuta dauden koadrilak aurreratzeko eta lurraldea orekatzeko.

**Aramaiok ze premia dauka eta zela erantzun ahal zaio Foru Aldunditik?**



Iñaki Nafarrate Aramaioko alkate izandakoa da. | ENEKO AZKARATE

> **"Herri bat urtebetez egoera horretan edukitzeko ez dago eskubiderik"**

> **"Inkestek diote gora goazela hiriburu guztietan, baita Gasteizen ere"**

> **"Araban daude 50 udalerri eta denetan izan gara, astero-astero"**

> **"Ezberdintasunak daude koadrilen artean, eta lurraldea orekatu gura dugu"**

Gure nahia izan da beti Aramaiora dirua ekartzea eta, esate baterako, agintaldi honetan ekarri ditugu ia 2 milioi euro. Hori gero erabili egin behar da, gastatu egin behar da. Esaterako, 2008an, eman genion Aramaioko Udalari milioi bat euro Etxaguengo azpiegiturak berritzeko, baina oraindik ez da hasi obra hori. Bestalde, aurten ere, Aramaiori bi obra eman dizkiogu, Azkoagan eta Untzillan egiteko, bietarako ia milioi erdi euro. Baina ikusten dugu Aramaioko Udalak ez diola horri erantzuten eta beste lehentasun batzuk dituela.

**Zein izan da Araban EAJk, Aralarrek eta EAk osatutako gobernu koalizioaren ekarpen garrantzitsuena?**
Hiru alderdi elkartu eta gobernu abertzalea osatzea. Lan ona egin da, gainera. Pena da azkenaldian apurtu izana. Aralarrek gobernua lagatzearen inguruan ez daukat ezer esateko, bere momentuan arrazoiak eman zituzten eta kito. Baina EArena beste kontu bat da. Izan ere, diputatuen kontseiluan gauza bat onartu eta batzarretara eroaten zenean, han, euren diputatuek aurka bozkatzen zuten. Hori ez zait zuzena iruditzen. Aurrekontuak onartzerakoan ere hala jokatu dute eta horregatik joan behar izan dute gobernutik. Hauteskundeak gero eta hurbilago daude eta horrek eragina izan du EAren erabakian.

**Zein da Araban EAJk daukan ahultasun nabarmenena?**
Abertzaletasun aldetik lan handia daukagu egiteko. Hiriburuan abertzaletasunak ez dauka indar handirik, hor eragin behar dugu. Lurraldean bai, indar handia daukagu, baina hiriburuan ez. Gorka Urtaran da gure alkategaia Gasteizerako; harekin bai, harekin irabaziko du EAJk Gasteizen. Cuerdarekin egon zen Maria Jesus Agirreren semea da.

**Arabako EAJ jomugan dago azkenaldian alderdikide batzuen ustezko irregulartasunak direla-eta. Zer deritzozu?**
Inputatuta daudenetako batzuk lagun ditut. Dena bihurtu da hedabideen zirku. Batez ere sozialistek eta popularrek menderatzen dituzten hedabideek, *El País*-ek, *El Correo*-k eta *El Mundo*-k bultzatuta. 10 hilabete daroagu kontu honekin, ez dute ezer frogatu. Ez dago ezer. Frogatu egin behar da inputatuak errudun direla, baina bitartean, errudun jo dituzte hedabideek eta orriak eta orriak betetzen ari dira haien aurkako albiste interesatuekin.

# ateak zabalik

# zatoz ikastolara!



## HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| UMEZAINTZA | urtarrilak | 31 | 18:00 | ARRASATE |

ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| JOSE ARANA | otsailak | 1 | 18:00-19:30 | ESKORIATZA |
| BASABEAZPI | otsailak | 1 | 18:00-20:00 | ARETXABALETA |
| ARIMAZUBI | otsailak | 1-2 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | 3 | 17:00-18:30 | ARRASATE |

## LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ARIMAZUBI | otsailak | 1-2 | 17:00-19:00 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | 3 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| GAZTELUONDO | otsailak | 4 | 16:30-18:30 | ARRASATE |
| ALMEN | otsailak | 5 | 16:30-18:30 | ESKORIATZA |

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| GAZTELUONDO | otsailak | 2 | 18:00 | ARRASATE |
| ARIMAZUBI | otsailak | 3 | 18:00 | ARRASATE |
| ALMEN | otsailak | 3 | 18:00 | ESKORIATZA |

ATE IREKIAK

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALMEN | otsailak | 5 | 16:30-18:30 | ESKORIATZA |
| GAZTELUPE | otsailak | 7-11 | egun osoa | ARRASATE |

MONDRAGON
GIZATASUNA LANEAN
Finantzak Industria Banaketa Ezagutza

ikastolenelkartea

informa zaitez

943 77 20 25
www.arizmendi.eu

Arizmendi ikastola

## DUELA 10 URTE

2001-01-24

### Saria Zainduz gimnasioari

Aretxabaletako Zainduz gimnasioak Inemek emandako Lan eta Zerbitzu Berritzaileen saria jaso zuen, eta Debagoienean sari hori eskuratutako lehen zerbitzu enpresa izan zen. Betiko zerbitzuez gain, fitness eta osasun zerbitzuak eskaintzearren eman zioten saria, hain zuzen kirola eta osasuna uztartzearren. Fisioterapia, osteopatia eta masaje zerbitzuak jarri zituzten, eta tai txi ikastaroak emateko asmoa agertu.



Aretxabaletako Zainduz gimnasioa. | M.A.

2001-01-26

### Lurrikara Indian: 20.000 hildako

Izugarrizko lurrikara bizi izan zuten Indiako mendebaldean, Ritchter eskalan 7,9 gradukoa, eta 20.000 lagun inguru hil ziren. Gainera, 50.000 zauritu utzi zituen eta 100.000 lagun inguru izan ziren desagertutakoak.

Indiako Errepublikaren 51. urteurreneko ospakizun ekitaldietan zeudela izan zen lurrikara eta 1.930 kilometrotan igarri zuten dardara, baita Pakistan, Nepal eta Bangladesh herrialdeetan ere.

## DUELA 5 URTE

2006-01-24

### Ideia eske kirol etxerako

Aretxabaletako kirol etxea handitu eta berritzeko ideien lehiaketa deitu zuen Udalak. Oinarrizko proiektua eta exekuzio proiektua idazteko eskaera egin zieten arkitektoei, eta zaharraren leku berean egiteko berria eskatu. Irabazleak behin betiko proiektua idaztea eta lanen zuzendaritza jasoko zituen saritzat.

## HERRITARRAK

**Lutxi Gartzia Gil** | Saltsa askotako kidea

# "Gautxoria naiz, amari sarri esan izan diot saguzarra izan behar nintzela"

Futbolzale amorratua da Lutxi Gartzia, UDA darama bihotzean eta gero Real Madril eta Reala



Lutxi Gartzia, Aretxabaletako Herriko Plazan, eguazten goizean. | M.A.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Lutxi Gartzia aparteko saltsa sortzailea da. Hainbat denda eta tabernatan lan egindakoa, jendearekin egotea du gustuko. Gurasoak Bastidakoak (Araba) ditu eta "odol errioxarraren" zantzuak dituela dio.

**Eta non igartzen zaizu Errioxa aldeko odol hori?**

Aretxabaletarrak baino irekiagoa naizela uste dut, alaiagoa, baita saltsa askotan dabilena ere.

**Asko joaten zara Bastidara?**

Bai, gurasoak bertan bizi dira eta sarri joaten gara.

**Eta ezberdinak dira bi herriak?**

Oso ezberdinak. Herriko giroak ez dauka zerikusirik, jendea askoz irekiagoa da, alaiagoa, eskuzabalagoa... Aretxabaletarrak itxiagoak gara, denbora luzeagoa behar dugu konfiantza hartu eta zabaltzeko. Bestalde, klima ere guztiz diferentea da.

**Hainbat denda eta tabernatan egin duzu lan; gustuko jendearekin egotea?**

Bai, izugarri. Halako lanetarako jaio naizela uste dut eta 17 urte nituenetik nabil horretan: jendearekin egon, diotena entzun eta psikologo lanak egin... Kooperatiban lan egiteko aukera izan nuen, baina oso aspergarria iruditzen zait lan hori.

**Eta zer gurago: herrian bertan lan egitea edo kanpoan?**

Arrasaten eta Bergaran ibilita nago; gustura, gainera. Herrian bertan zailagoa dela uste dut, kontu handiagoarekin hartu behar direlako bezeroak.

**Parrandazalea zara?**

Bai, izugarria. Gautxoria naiz, amari txikitan esaten nion saguzarra izan behar nintzela. Gainera, gauetan askoz aktiboagoa naiz, egunez kosta egiten zait martxa hartzea.

**Herriko jairik gustukoena?**

Aratusteak. Gehienetan lan egitea egokitu izan zait tabernaren baten, baina barra atzetik oso gustura bizi izan ditut: mozorroak ikusi, herritarrak zaindu... Lan handia izaten da egun horretan, baina merezi izaten du.

> "Jendearekin egotea dut gustuko: diotena entzun, psikologo lanak egin..."

> "Gau giroak behera egin du gurean, orain taberna bakarra geratzen da zabalik"

**Zeu mozorrotzen zara?**

Bai; behin UDAkoekin eta gainerakoetan tabernako kideekin, lanean egoten naizelako.

**Gau giroak behera egin duela gurean uste duzu?**

Bai, asko jaitsi da. Pentsa, taberna bakarra geratzen da zabalik Aretxabaletan 03:00retatik aurrera. Eta bertan elkartzen dira gaztetxoak, gurasoak eta aitaita-amamak.

**Eta kontu "arraroak" ikusten dira gauean?**

Bai, kontu benetan "arraroak" ikusi izan ditut. Dena den, gaua lotsa galdu eta ondo pasatzeko erabiltzen dute herritarrek, giro sanoan, laneko eta asteko kontuak ahazteko dantzan eginez.

**Musikazalea zara, gainera.**

Bai; musika klasikoa oso gustuko dut. Klarinetea jotakoa naiz urte askoan; Bergarako orkestran 22 urte inguru eta Arrasatekoan, 10 bat. Europa eta Espainiako herri askotan izandakoa naiz klarinetearekin, baina oso sakrifikatua da halako jardunari eustea, eta semea izan nuenean utzi egin nuen.

**Eta dantzatzeko zein musika?**

Edozein, modan dagoen guztia. Hankak bakarrik hasten zaizkit dantzan musika entzundakoan.

**Futbolzalea ere bazara, ezta?**

Bai! UDAko zale amorratua naiz, Belen Estebanek esango lukeen moduan: "¡Por la UDA, mato!".

**Orduan, asko berotzen zara futbol zelaietan...**

Bai, oihu batzuk ateratzen ditut. Kanpora ere asko joan izan naiz eta Pasaia eta Hondarribia aldean ere ezagutzen naute.

**Eta Real Madril futbol taldeko zale zara!**

Bai! *Merenge* peto-petoa, gainera; Bernabeun ere egonda nago partiduak ikusten.

**Hala ere, Realeko jokalariak gurean izan zirenean gustura ibili zinen euren artean...**

Reala ere gustuko dut-eta. Bihotza erdibituta izaten dut bi taldeek elkarren aurka jokatzen dutenean. Eta egia da, jokalarien artean argazkiak ateratzen eta sinadura eske ibili nintzen.

**Zer dute, ba, futbol jokalariek halako ikusmina sortzeko?**

Ez dakit, ba, ez ditugula eskura... Bizitzan behin izaten da euren alboan egoteko aukera eta aprobetxatu egin behar...

**Eta euretakoren bat gustuko?**

Claudio Bravorekin "maiteminduta" geratu nintzen; atzetik jarraika jardun nuen jertse eske eta bi muxu eman zizkidan.

## NIRE HERRIAN

**:) HERRIA BERA, ALDAKETA BARIK**

Aretxabaleta dut gustuko, herria bera; bertan jaioa naiz eta bertan hilko naizela uste dut. Oso polita da, tamaina egokia du... Lehen gutxiago ginen, baina azken urteotan jende asko etorri da kanpotik bizi izatera, eta hazi egin da. Hala ere, aparteko bizilekua dela uste dut; nahiz eta geure kontuak eta gorabeherak izan.

**:( EKIMEN GEHIAGO BEHAR**

Era berean, aspergarria da gure herri hau; ez dago ezer inorendako. Futbol partidua daukagun domeketan, tira, baina bestela zer egin? Kale bakarra dugula esan izan dut, eta kalean gora eta kalean behera ibiltzen garela guztiok. Batez ere, gazteendako egonlekuak falta zaizkigula uste dut: jolaslekuak, kanpoko igerilekua...

# HERRIAK



Orain arteko bi ekitaldietan eraikuntza iraunkorra eta uraren gaia jorratu dituzte Eskoriatzako azokan. Aurten hondakinak izango dira protagonista. | SAIOA ALTZUA

ESKORIATZA

## Iraunkortasunaren hirugarren azoka bihar eta etzi Eskoriatzan

- Herritarrak hondakinek sortzen duten arazoaz jabetzea da aurtengo azokaren helburua
- Hondakinaren gaiaz gain, garraiobide eta energia iturri alternatiboen berri emango dute

**EDU MENDIBIL** | ESKORIATZA

Hondakinak izango dira protagonista asteburuan Eskoriatzan izango den iraunkortasunaren azokan. Hasiera baten, joan den azaroan egitekoa zen, baina hainbat arazo zela-eta urtarrilera atzeratu behar izan zuten hirugarren ekitaldia. 2008an eraikuntza iraunkorra izan zen gaia eta orain dela bi urte uraren problematika jorratu zuten.

Esan bezala, herritarrak hondakinek sortzen duten arazoaz jabetzea da helburu aurten. Eneritz Zubia Eskoriatzako Ingurumen teknikariak azaldu digunez: "Hainbeste buruhauste sortzen digun hondakinen gaia aukeratu dugu eta gai hori lantzen duten hainbat enpresa etorriko dira Eskoriatzara". Besteak beste, garraiobide elektrikoen (Enmedio enpresarekin), eguzki plaken (Ekitermik) eta olio birziklapenaren (Eko3) gaineko informazioa eskuragarri izango da. Emaus enpresakoek panelak eta produktuak erakutsiko dituzte eta geotermia eta argiteria lantzen duten enpresak ere izango dira ordezkatuta. Iaz, hain zuzen, zaharkitutako herriko argiteria aldatu zuten Eskoriatzan eta Led teknologia duen argiteria sistema berria jarri zuten. Hori dela eta, erakusmahai berezia egongo da Led argiteriaren teknologia, funtzionamendua eta onurak erakusteko.




Aurtengo kartela. | ESKORIATZA

### Kudeaketa arduratsua

Zapatuko hitzaldiaren ardura Gipuzkoa Zero Zabor ekimenak izango du aurtengo ekitaldian. Era berean, postua jarriko dute Eskoriatzako kiroldegian, hondakinen kudeaketa arduratsuarekin zaborrik ez sortzea posible dela eta erraustegi eta zabortegiak soberan daudela erakusteko helburuarekin. Zapatuan egingo duten hitzaldiaren izenburua hauxe da: *Hondakinek badute irtenbidea, atez ateko sistema.*

### Domekan, taloak

Azokako ordutegia honako hau izango da: zapatuan 12:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:00etara eta domekan 11:00etatik 14:00etara. Domeka eguerdian taloak dastatzeko aukera izango da.

DATUA

**10**

ENPRESA

EkoBai, Eko3R, Emaus, Enmedio, Taer Solar, Erka, Ekitermik, Ekosua eta Askanatura enpresez gain, Gipuzkoa Zero Zabor ekimenekoak ere izango dira Eskoriatzako azokan.

### Gipuzkoa Zero Zabor taldearen hitzaldia

Gipuzkoa Zero Zabor ekimen boluntarioko Mikel Ikatzategik eta Jose Mari Irazustak hitzaldia egingo dute zapatuan, 18:00etan. Iaz ekainean sortu eta poliki-poliki handitzen doan ekimena da. Hernanin, Usurbilen, Zarautzen, Donostian eta Orion lanean dira dagoeneko eta Debagoienean ere hasi dira ekimenaren inguruko lehen mugimenduak. Ainhoa Arrospide usurbildarra dugu kideetako bat. Haren hitzetan, "izenak dioen moduan, zaborra zerora hurbiltzea da helburua. Horretarako, beharrezko ikusten dugu eredu linealetik eredu zirkularrera jauzi egitea; hau da, ustiatzen diren produktuen bizitza berritzea. Orain arteko eredua jasanezina da, mundua zaborrez betetzen ari garelako. Arazo nagusia zikloaren sorreran, produkzioan eta amaieran dagoela ikusten dugu eta birziklatzearekin zikloa berritzea izango litzateke helburua".



Ibarreko herritarrei dago zuzenduta azoka. Goian, 2009ko irudi bat. | SAIOA ALTZUA

# Arrazoiak arrazoi, euskaldunak izan arren ez dugu euskaraz egiten

## Euskara ez menperatzea da faktoreetako bat, AEDk jakinarazi duenez

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Euskaraz dakitenak erdia baino gehiago dira Arrasaten, baina erabiltzen dutenak askoz gutxiago dira. Eustaten 2006ko datuen arabera, Arrasateko herritarren % 54,7 dira euskaldunak, % 19,3 ia euskaldunak eta %26,1 erdaldunak. Datuokin alderatuta, 2006 eta 2010. urteen artean euskararen erabilera erreala neurtzeko Arrasaten egindako kale neurketen emaitzen arabera, %32 da euskarari dagokion batez besteko indizea. Horrek esan gura du Arrasaten neurtutako elkarrizketa guztietatik, erabiltzen dela euskara.

Egoera "kezkagarri" horren aurrean, AEDk euskararen erabilera baldintzatzen duten arrazoiak zeintzuk diren jakiteko ikerketa bat abiarazi zuen 2009an. Beraz, azterketa kualitatiboa egin dute, faktoreetara joz, eta emaitzak martitzenean aurkeztu zituzten Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.




AEDk martitzenean aurkeztu zituen Siadecoren emaitzak. | JULEN IRIONDO

**DATUA**

**32**

ALDIZ EUSKARAZ

Arrasaten neurtu diren elkarrizketetatik, 32tan egiten da euskaraz, %54,7 euskalduna izan arren.

**Gurasoak, transmisiorako gako**

AEDren ekimenez, 2010eko apirila eta iraila bitartean, 30-45 urte arteko herritarrei galdetu zien Siadeco enpresak. AEDren ustez, "azpimarratzekoa" da aztertutako adin tarteak euskararen transmisioan duen garrantzia: "Adin tarte horretako pertsonak, guraso izateko garaian daudenez, giltzarriak dira: batetik, euren seme-alabei hizkuntza ohiturak transmitittzeko eta, bestetik, euskararen transmisio kulturala bermatzeko". Siadecok nola egin duen datuen bilketa? Bada, sakoneko elkarrizketa pertsonalak eta eztabaida libreko talde erdi gidatuak erabilita.

Hainbat arrazoi azaleratu ditu ikerketak: haur txikiekin euskaraz baina gurasoen artean gaztelaniaz egiten diren kasuak, eskolan euskara batua jaso dutenez sentimenduak euskaraz adierazten ez dakitenak, euskaraz txarto egiteko lotsa dutenak eta aldi berean pazientziarik ez dutenak euskaraz egitea kostatzen zaionarekin...

Oro har, besteen gainetik nabarmentzeko faktore bat honakoa da: Arrasaten egun euskaldun askok ez dute euskara menperatzen eta, ondorioz, beste aldagai batzuk ere tartean daudela, ez dute erabiltzen.

**"Denok gara protagonista"**

AEDk uste du pertsona bakoitza dela protagonista hizkuntzarekiko: "Hizkuntza ohitura kaskarrak aldatzeko, ezinbestekoak izango dira jarduera informatiboak, formaziorako jarduerak eta sustapen jarduerak.

### ONCEk 245.000 euro banatu ditu San Andres auzoan

Eguazteneko zozketan atera zen zenbaki sariduna: 43.847. Halako zazpi kupoi saldu zituen Enrique de Cos saltzaileak San Andres auzoan. Bakoitzak 35.000 euro eskuratuko ditu: "Auzoko jendeari saldu diot, merezi duen jendeari. Euskadiko auzorik onenean saldu dut, zapata berriak dituen haur baten moduan nago", adierazi zuen De Cosek. Ez da saria ematen duen lehen aldia: duela 18-19 urte 100 milioi pezeta eman zituen.

### Alderdiek deitu dute urtarrileko Azken Ostirala, Herriko Plazan

Urtarrileko azken egubakoitza izango da gaur. Hala, Arrasateko zenbait alderdi politikok deituta euskal presoen eskubideen defentsan elkarretaratzea egingo dute gaur Herriko Plazan, 19:30ean, hain zuzen ere. Hauek dira elkarretaratzea deitu duten Arrasateko alderdiak: EA, Alternatiba, Ezker Abertzalea, Aralar eta Gorripidea Ildoa Zutik. Azken hilabeteotan herriko eragile ezberdinek egin dute euskal presoen aldeko deialdia.



# Gernikako Akordioak herriko eragile eta herritarren babesa jaso du asteon

Akordioa ezagutarazteko agerraldia egin zuten martitzenean Kulturaten



Martitzen iluntzean Kulturaten egindako agerraldia. | MIRIAN BITERI

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Irailaren 25ean Gernikan izenpetu zuten akordioak aurrerapausoak ematen dihardu. Martitzen iluntzean, orain arte akordioarekin bat egin duten askotariko eragileetako ordezkariak eta herritarrak batu ziren Kulturateko areto nagusian, eta horren berri eman zuten.

Jose Mari Velez de Mendizabal historialari eta idazleak eta hezkuntza arloko langile Hirune Iribecamposek egin zuten berba guztien izenean. Nabarmendu zuten Gernikako Akordioak indarkeriarik gabeko eta eskubideen urraketarik gabeko eszenatoki baterako baldintzak sortzearen aldeko apustua egiten duela.

Haien esanetan: "Ziur gaude bidea hauxe dela eta ez dagoela besterik Euskal Herriak behar eta lortu nahi dituen helburuak erdiesteko". Gaineratu zuten "helburu alderdikoiak" albo batera uzteko ordua dela, eta gogorarazi zuten "justizia, bakea eta askatasuna" direla gizartearen balio nagusiak. Horren harira, bozeramaileen arabera: "Balio horiek lortu egin behar ditugu eskuzabaltasun oparoenaren bidetik, ziur gaudelako bakea eta askatasuna irabazten dituenak etorkizuna ere irabazia duela eta horixe dela Euskal Herriak zuzentzen duen eskaria eta agindua".

**Herritar guztiei gonbita**

Herritarrez gain, honako taldeek ere egin dute bat horrekin: Lore Gazteak, Arroztaitz, Doke, Izaskun Murgia, Arrasateko Pilota Taldea, Ahotsak, Indarkeriaren Aurkako Arrasateko Emakumeen Plataforma eta *Mondraberri*-k. Iribecamposek gonbita egin du gura duten talde edo norbanakoek akordioarekin bat egin dezaten.

## Datorren astean hasiko dira Garaia eta Markulete arteko espaloia egiten

M.B. | ARRASATE

Oinezko askoren eskaerari kasu eginez, datorren astean hasiko dira Markuleteko biribilgune berriko ingurunea oinezkoendako egokitzen. Diputazioko Errepideetako zuzendari Luis Mari Apraitzek baieztatu digu 2,50 metroko zabalera izango duen bideak Garaia Berrikuntza Gunea eta Mendigain baserriaren sarrera Markuleteko pasealekuarekin lotuko dituela; hain justu, 200 bat metroko luzera izango du.

Apraitzek jakinarazi digu behin betiko espaloia izango dela, eta "hobea" izango den bidea egitea aztertuko dutela denborarekin. Hiru aste iraungo dute lan horiek.



Garaia eta Markuleteko industrialdea lotuko ditu espaloi berriak (gorriz). | GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA


Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

Gurasoen Elkartea
arrasate Herri Eskola
baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Guk bezala, egin apustu, egin kiñu Euskal Eskola Publikoaren alde!


BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69


MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49


ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

## Ford Mugarri Arrasatek Sucesores de Agirreren bisita izango du

Euskadiko txapelketan lider jarraitzen du Arrasateko taldeak, eta asteburuan, sailkapenaren erdian dagoen Sucesores de Agirreren bisita izango dute Edu Orgazen mutilek (Zapatua, 16:30, Iturripe).

Lehen territorialean, berriz, Arrasateko mutilek Legazpiara egingo dute bidaia domeka goizean (11:00), Hegialderen kontra jokatzera. Azkenik, kadeteek Urnietan jokatuko dute zapatu goizean, 12:00etan.

## Domekan jokatuko dute santamasetako tenis txapelketako finala

Eta aurtengo finalean ere iazko finalistak izango dira zein baino zein gehiago: Jorge Aranes eta Eneko Ugalde (10:00etan Musakolako kiroldegian).

Eran berean, otsailaren 5ean AKE tenis elkarteak Aloña Mendiren aurka neurtuko ditu indarrak VascoNavarroRiojanoCantabro (VNRC) delako tenis txapelketan, Arrasaten bertan. Ibarreko taldeek aspaldi ez dute horrelako txapelketa batean esku hartu.



Lehen fasean sailkatzen ez direnek B ligan jokatzen jarraituko dute. | GOIENA

# Ligan eta kopan, berritasunak

Lehenengo fasean sailkatzen ez direnek jokatzen jarrai dezaten neurriak hartu dituzte antolatzaileek

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Hamaikagarren jardunaldia jokatzear dagoela, nobedadeak daude. Halaxe dator Zaldibarko txapelketa; izan ere, datozen asteotan txapelketak hainbat berritasun izango ditu, betiere hobera egiteko asmoz. Hala, liga erregularra amaitzen denean –hiru jardunaldi geratzen dira–, hurrengo faserako sailkatzen ez diren taldeek ez diote txapelketari agurrik esango, orain arte gertatzen zen moduan. Ez, B ligan jokatuko dute. Hau da, lehenengo zortzi sailkatuek Zaldibarko txapelketa nork irabaziko duen erabakitzeko jokatzen jarraituko dute (A liga deituko da aurrerantzean) eta fase horretatik kanpo geratzen direnek liga paralelo bat jokatuko dute, B liga deiturikoa: "Inor txapelketatik kanpo gera ez dadin", adierazi dute antolatzaileek.

### Kopan ere aldaketak

Eta aldaketak egiten hasita, antolatzaileek kopan ere berritasunak egin dituzte. Hala, bigarren txapelketa horri bizitasuna emateko, kopa osoa bi asteburutan jokatzea erabaki dute. Bi jardunaldi horiek liga erregularra amaitu bezain pronto jokatuko dituzte taldeek, eta ondoren hasiko dituzte A eta B ligak. Txapelketa horien nondik norakoen informazio gehiago *www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com* helbidean dago.

Joan den asteko jardunaldiari dagokionez, Dribling izan zen asteburuari etekin handien atera ziona, jokatutako bi partiduetan lau puntu batuta lehenengo postura egin du-eta salto, Lasagabasterri aurre hartuta. Hala, adi datozen asteotako jardunaldiei, txapelketako aurrealdeko postuetan aldaketa handiak egon daitezke-eta. Hiru puntuko tartean sei talde daude lehian, eta asteburuan, esaterako, Lasagabasterrek eta Ekaitzek, McAwenDauenek eta Ciprisek eta Iriztuk eta Driblingek jokatuko dute elkarren kontra.

## KARTELDEGIA

### EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Iluntz-Iriztu | 0-11 |
| Betrayer-Fidel & Disc. | 7-3 |
| Lasagabaster-Dribling | 2-4 |
| Fuxion-Abokajarro | 2-9 |
| McAwenDauen-Dribling | 6-6 |
| Cipris-Dublin | 3-4 |
| McAwenDauen-Steaua | 12-0 |

### SAILKAPENA

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Dribling | 23 | 10 |
| 2 | Lasagabaster | 22 | 10 |
| 3 | Cipris | 21 | 10 |
| 4 | Ekaitz | 21 | 9 |
| 5 | Iriztu | 21 | 10 |
| 6 | McAwenDauen | 20 | 10 |
| 7 | Abokajarro | 17 | 10 |
| 8 | Betrayer | 15 | 10 |
| 9 | Dublin | 14 | 10 |
| 10 | Iluntz | 10 | 10 |
| 11 | Portaboleiros | 9 | 9 |
| 12 | Fidel & Disc. | 6 | 10 |
| 13 | Fuxxion | 3 | 10 |
| 14 | Steaua del Grifo | 0 | 10 |

### PARTIDUAK

URTARRILAK 29, ZAPATUA

**10:30** Iriztu-Dribling / **Betrayer**
**11:30** Abokajarro-Betrayer / **Dribling**
**12:30** McAwenDauen-Cipris / **Abokajarro.**
**16:00** Lasagabaster-Ekaitz / **Iluntz**
**17:00** Iluntz-Fidel & Disc / **Ekaitz**

URTARRILAK 30, DOMEKA

**11:30** Fuxxion-Dublin / **Portaboleiros**
**12:30** Portaboleiros-Steaua del Grifo / **Dublin**



# Shakespeareren 'La tempestad' Amaian

Companhia do Chapito antzerki taldeak eskainiko du William Shakespeare idazlearen lanean oinarritutako lana etzi, domeka, 19:30ean; sarrerak salgai daude 10 euroren truke

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Istorio magiko bat da domekan Amaia antzokian eskainiko dutena. Mamuak eta espirituak batzen dituen istorioa, hain zuzen. Chapito antzerki taldearen antzezlan berriena da. William Shakespeareren lanean oinarritutako lana da *La tempestad*. Uharte sorgindu baten, itsaso urrun baten gertatutakoak kontatuko dituzte aktoreek.

**Ikus-komedia izango da**

Kontatzeko modua, gainera, berezia izango da. Izan ere, komunikazio ez berbalak garrantzia izango du lanean; hau da, "esaten ez denak" izango du garrantzia. Shakespearek erabilitako hitzjoko trebeak nabarmenak izan ziren beti haren pertsonaia komikoak eraikitzeko, baina Amaian eskainiko den lanean, pantomimaren eredu isilak nabarmentzen dira, batez ere.



Jorge Cruz, Tiago Viegas eta Marta Cerqueira dira antzezlaneko protagonistak. | GOIENA

Kontatzen dena da uharte sorgindu baten gertatutakoak. Ametsezko mundu horretan xalotasunak, maitasunak, beldurrak, gaiztakeriak eta mendekuak aurrez aurre jarri zirenekoak, mago handi baten menpe.

Antzezlanean hiru protagonistak hartuko dute parte: Jorge Cruz, Tiago Viegas eta Marta Cerqueira aktoreek. Zuzendaria John Mowat da eta 70 minutu inguru iraungo du.

Domekan 19:30ean izango da antzezlana, 10 euroren truke.

# Musikak girotuko du Al-Andalusen urteurren jaia

**A.E.** | ARRASATE

Arrasateko Al-Andalus elkarteak 21 urte beteko ditu aurten. Hori ospatzeko, aste bukaerarako jaia antolatu dute. Gaur hasi eta domekara arte, musika, dantza eta jatekorik ez da faltako andaluziarrek Arrasaten duten elkartean. Gaur, egitarauaren aurkezpena eta urteurren afaria izango dute Bedoñako Errastikua jatetxean, 21:00etan. Bihar, Barakaldoko Hijos de Jaen elkartearen Zambra eta Sueños taldeen emanaldia; eta gauean, *Una noche sin Sabina* ekitaldia.

**Presidente berria**

Zapatuan 19:00etatik 20:00etara eta 23:30etik aurrera eta domekan 12:30etik 14:30era elkarteko bazkideek jan-edana izango dute egongela nagusiko barran.

Bestalde, presidente berria aukeratu beharko dute bazkideek: zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eta domekan 12:00etatik 14:30era.

**RAFAEL GOMEZ** | AL-ANDALUSKO PRESIDENTEA

## "Elkarte moduan jende gaztea erakartzea da Al-Andalusek duen erronka nagusia"

Esan daiteke elkartea sortu zenetik dagoela zuzendaritza taldean Rafael Gomez. Presidente lanetan, baina, azkeneko 16 urteak egin ditu. Elkartearen gorabeherez berba egin digu Gomezek.

**Zorionak, 21 urte bete ditu elkarteak!**

Hilaren 28an 21 urte izango dira elkartea sortu genuena. Ohikoena da urteurren borobilak ospatzea; baina guk, urtero ospatu gura dugu. Andaluziako egunaren (otsailak 28) aurrerapen bat dela esan daiteke.

**Egitarauari begiratuta, zer aipatuko zenuke?**

Beste elkarte batzuekin egiten dugun trukea da aipagarriena; kasu honetan, Barakaldoko Hijos de Jaen elkartearekin. Gainera, zapatuan egongo den ekitaldia —*Una noche sin Sabina*— ere aipatuko nuke. Joaquin Sabinaren abestiak joko dituzte Arrasate eta Gasteizko lagun batzuek.

**Gainera, presidentea hautatzeko bozketak egingo dituzue.**

Bai, bi urtean behin egiten dugu. Aurten ere nire burua aurkeztuko dut presidente izateko. Horretara behartu naute... [Barre]



Rafael Gomez. | GOIENA

**Zein da Al-Andalusen erronka?**

Elkarte gehienen moduan, jende gaztea erakartzea da erronka. Hala ere, nahiko gustura gaude gazteek hemen egiten duten lanarekin.

### EGITARAUA

**EGUBAKOITZA, 28**

**21:00** Aurkezpena eta afaria.

**ZAPATUA, 29**

**18:00** Barakaldoko Hijos de Jaen elkarteari agurra.

**19:00** Hijos de Jaen elkartearen emanaldia.

**21:30** Afaria.

**23:30** *Una noche sin Sabina* emanaldia.

**DOMEKA, 30**

**13:00** Grupo Alegria de la Sierra, Coro Rociero eta Sueños de Andalucia taldeen emanaldia.

# Bi ikastaro antolatu ditu Gazte Bulegoak

**A.E.** | ARRASATE

Arrasateko Gazte Bulegoak bi ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Arrasaten izango dira ikastaroak, Kulturaten.

Flamenko ikastaroa izango da bat. Askoa Etxebarrieta izango da irakaslea eta otsailaren 8tik apirilaren 12ra iraungo du. Martitzenetan elkartuko dira flamenkoa ikasteko, 18:30etik 20:00etara, Kulturaten.

Beste ikastaroa argazkilaritzakoa izango da. Antonio Murillok emango ditu argazkilaritza digitalaren oinarrizko ezagutzak. Otsailaren 9tik apirilaren 13ra izango da, eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaten.

Prezioak hauek dira: 20 euro; eta 12 euro ikasle edo langabeendako. Parte hartu gura duenak jo dezala Arrasateko Gazte Bulegora, 943 25 20 65 telefonora dei dezala edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* helbidera idatz dezala. Informazio gehiago gura duenak ere bide horiek erabil ditzake.

## 'Harry Potter' eta 'Caza al espía' filmak, bihar bakarrik

Aste bukaerari dagokionez, domekan ez da zinemarik egongo, antzerkia dago-eta Amaia Udal Antzokian; hala, bihar bakarrik eskainiko dituzte filmak.

Zapatuan, 17:00etan, *Harry Potter y las reliquias de la muerte* filma eskainiko dute. Haurrendako zinema izango da. Harry Potter sagako zazpigarren eta azken lana da. Daniel Radcliffe, Rupert Grint eta Emma Watson dira filmeko protagonistak.

20:00etan, *Caza al espía* filma eskainiko dute. *Thriller* generoko filma da eta 110 minutu irauten du.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

# Genero-berdintasuna lantzeko liburuxkak, Udalaren eskutik

## Berdintasunerako I. planaren barruan, arloz arloko egoera eta etorkizunerako asmoak batu ditu Udaleko Ongizate Zerbitzuak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako I. plana jarri zuen abian Bergarako Udalak iaz. Orain, plana gizarteratzeko ahaleginetan, herritarren artean banatzeko liburuxkak kaleratu ditu. Astelehen goizean egin zuten aurkezpena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Berdintasun teknikari Arantzazu Oregi eta Roberto Martinez zinegotzia azaldu ziren komunikabideen aurrean. Bost liburuxka dira, arloz arloko egoera eta etorkizunerako asmoak jasotzen dituztenak: Udala; Euskara eta Kirola; Hezkuntza; Hirigintza eta Mugikortasuna; eta, azkenik, Lana eta Gizarteratzea.


Arantzazu Oregi eta Roberto Martinez, asteleheneko aurkezpenean. | E.M.

**4.800 ale**

Udaleko ordezkariek azaldutakoaren arabera, 4.800 ale kaleratu dituzte eta arloko eragileei eta gaiarekin interesa duten herritarrei banatuko zaizkie datozen egunotan. Arantzazu Oregiren hitzetan: "Laneko tresna izatea nahi dugu eta berdintasuna jorratzeko abiapuntua izan daiteke". Euskara eta kirolari dagokion liburuxkak izan du tiradarik handiena, 1.200 alekoa. Beste laurek 900 aleko tirada izan du bakoitzak. Zortzi orrialdeko liburuxkak dira DIN -A5 formatuan. Roberto Martinez zinegotziak astelehenean esan zuenez, "Udalak pauso batzuk eman behar ditu berdintasuna lortzeko ahaleginetan, eta beste eragile batzuek ere bai. Berdintasunaren inguruan sentsibilizazioa piztea eta etorkizunean erabakiak hartzea da asmoa eta zentzu horretan lagungarriak izan daitezke liburuxka hauek".

**2013ra arteko plana**

Berdintasunerako I. planak sexu -generoan oinarritutako desorekak saihestea du helburu. Plana 2013ra arte iraungo du. Bada, desoreka horiek desagertzeko lan egiteko premia nabarmendu dute arduradunek.


E.M.

## Kerman Bergaran, mintzalagun

ETB1eko *Kerman mintzalagun bila* saioa grabatu zuten martitzenean Bergaran. Fernando Ruiz aktorearekin (Kerman) batera lau laguneko lan taldea etorri zen eta herriko hainbat tokitan egin zuten grabazioa. Izar Narbaitza, Karlos Etxaniz eta Alex Narbaetz azalduko dira Kermanekin berbetan. Saioa otsailaren bukaeran emititzeko asmoa dute.

### OHARRAK

**GAZTEENDAKO DJ JAIALDIA ZABALOTEGIN**

Bihar, zapatua, izango da, 18:30etik 21:30era, DBHko ikasleendako, DJ Ramirekin.

**AZOKAN POSTUA HARTZEKO DEIA**

Azokan postua hartzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Eskaintzaren espedientea udaletxeko idazkaritzan aztertu ahal da 09:00etatik 13:00etara.

**MAGALIREN ALDEKO TXARTELAK SALGAI**

Magali Muruamendiaratz neskatoari laguntzeko txartel gehiago jarriko dituzte salgai bihar, zapatua, euro baten. Honako lekuetan egongo dira: Imprespal, Barcelo eta Ecuador bidaiak, Bule, Ariznoa, Ganbara, Egon, Agorrosin eta Cafe Bergara tabernak, kultura etxea eta Bolintxo okindegia. Burmuinean jaiotzatik kalteak ditu eta abuztua ezkero Foltra izeneko osasun etxean (Galizia) tratamendua jasotzen ari da.

**MEDITERRANEOAN ZEHAR BIDAIA SAN JOXEPEREKIN**

Grand Celebration itsasontzian izango da. Maiatzaren 16an abiatuko da, Bartzelonatik. Irla grekoak, Turkia eta Egipto zeharkatuko ditu. Izena emateko jo elkartearen bulegora urtarrilaren 31 baino lehen 11:30etik 12:30era eta 17:30etik 18:30era.

### NIRE USTEZ



MAIALEN MADARIAGA

## Luzatu antenak

Irrati libre baten antena herrian jartzeko diru premia dagoen garai hauetan, gure belarrietako antenek zein musika frekuentzia jasotzen dituzten aztertu nahiko nuke.

Abestirik onenak, orain, telebista eta irrati indartsuenek aukeratzen dituzte. Eta hori gutxi balitz, taberna guztietan abesti berberak entzun behar izaten ditugu, badaezpada, inor kantuaren hitzak ikasi gabe gelditu ez dadin. Oso tarteka, euskal kanturen batek ere ihes egiten du. Baina Kortaturen *Sarri sarri* kantua sarri baino sarriago entzun dugu jada, eta Mikel Laboa taberna ixteko kantari gisan erabiltzen dute.

Onartu dezadan, ni ere betiko kantu horiekin hankak airean saltoka hasten den horietakoa naizela. Baina gure inguruan sortzen diren doinu berriak zabaltzen hasiko bagina, euskal musikak zentimetro batzuk gorago salto egingo luke. Uhin indartsuenen errealitatean ez dira existitzen bertako sortzaileen disko berriak, edo gaztetxeetako aurkezpen kontzertuak. Baina hauetatik aparte ba ote daude frekuentzia gehiago? Egon badaude, baina ez dizkigute besteak bezain eskuragarri jartzen.

Iruditzen zait guk jarri beharko dizkiegula antenak gure buruei, eta uhin desberdinak jasotzen hasi. Bestela, Euskal Herrian, oraindik ere, rock-and-rollak dirurik ez ematen jarraituko du.

**"Uhin indartsuen errealitatean ez dira existitzen bertako egileen diskoak"**

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Estella ortopedia
RPS 421/97

ZERBITZU BERRIA
Gurpil-aulkien eta garabien alokairua

Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63
*consultas@farmaciaestella.com*


1799
2011
Mariaren Lagundia
ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net
MATRIKULAZIOA
Urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra
2 urteko umeen gurasoentzat bilera otsailaren 2an
arratsaldeko 18:00etan
...zuk nahi duzuneraino heltzeko
Hemen daukazu aukera...
2
3
4
5
6
7
8
9
10



Bergarako igerilariek Oñatikoekin batera dihardute aurten. | GOIENA

# Bergarako eta Oñatiko 20 igerilari lehiatuko dira bihar Agorrosinen

Errendimenduko hirugarren jardunaldia egingo dute, 16:00etan hasita

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bihar arratsaldean igeriketa txapelketa izango da Agorrosinen, eta Oñatiko eta Bergarako 20 igerilari izango dira lehian, Euskal Herriko igeriketa txapelketarako –martxoan egingo dute– gutxieneko markak lotzen.

Egia esan, ibarreko ordezkari askok aurreko jardunaldietan egindako lan onari esker dagoeneko lortu dituzte gutxieneko marka horiek –urrian hasi zituzten txapelketak–, eta bihar euren markak hobetzea izango dute helburu. Noski, gutxieneko marka horiek ez dituztenek presio handiagoa izango dute.

**Etxeko lanak eginda**

Igerilari batzuek Agorrosingo igerilekura salto egingo dute bihar, Euskal Herriko txapelketarako etxeko lanak eginda dituztela. Hauek dira ordezkari horiek: Aitor Uriarte, Mikel Biain, Jon Muxika, Ane Sanz de Galdeano, Amaia Tatiegi, Ainhoa Tatiegi, Helene Ugarte, Amaia Arriaran, Nerea Elortza, Nerea Uriarte, Ikerne Urtzelai, Maria Abeijon eta Mireia Aranburu. Gainontzeko zazpi igerilariek txapelketa handirako txartel bat lortzeko egingo dute lan.

> **Ibarreko igerilari batzuk dagoeneko sailkatuta daude Euskal Herriko txapelketarako**

**Bergarakoak Oñatikoekin**

Gaur egun Bergaran bi igerilari daude errendimendu mailan, Jon Muxika eta Xabier Labaka –parte-hartze mailan 50 igerilari inguru daude herrian. Eta errendimenduan *bakarrik* egon beharrean talde-giroan murgiltzeko eta lan hobeto egiteko, bergararrak Oñatikoekin batera dabiltza taldean.

Bestalde, bihar Oñatin beste txapelketa bat izango da, Kutxa Sarikoa; gaztetxoak lehiatuko dira bertan (15:30).

## Jon&Sugramas taldearen akustikoa gaur Zabalotegin

M.B. | BERGARA

Arima Beltzako abeslari eta Uek taldeko bateria-jotzaile izandako Jon Gurrutxaga Bergaran izango da gaur, egubakoitza, proiektu berriarekin, Jon&Sugramas taldearekin, hain justu ere.

Abesteko duen grina asetzeko asmoz, Elgoibarko musikaria duela bi urte inguru hasi zen proiektu berri horretako kantuei forma ematen. Eta kantu sorta bat osatu zuenean taldea osatzea erabaki zuen, aspaldiko lagunekin batuta. Hala, sugeekin lotzen den landareari erreferentzia eginez, Sugramas izenarekin bataiatutako banda osatu zuen, honako musikariekin: Legen Beltzako Ekaitz Garmendia eta Ivan Hernandez azpeitiarrak, gitarra-jotzailea eta bateria-jotzailea, hurrenez hurren; eta Andrakan taldean ere badihardoen Andoni Muxika baxu-jotzaile elgoibartarra.

**Rocka eta bluesa**

Jon&Sugramas proiektuan rocka da nagusi; 70eko hamarkadako rock taldeen eragina zuzena da, bluesarena ere nabari den arren.

Estreinako lana maiatzean argitaratu zuten *Jon&Sugramas* izenburupean, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin 22:30ean egingo duten kontzertua akustikoa izango da.



Jon&Sugramas kontzertu baten. | GOIENA

### Udal Musika Bandak hileroko kontzertua egingo du domekan, 12:30ean, Udal Pilotalekuan

Udal Musika Bandak urteko egutegiko lehenengo kontzertua egingo du domekan, 12:30ean Udal Pilotalekuan. Bost piezako emanaldia egingo dute.

Hain justu ere, hauxe da domekan Udal Musika Bandak egingo duen egitaraua: Roost-en *Arsenal*; Guridiren *Preludio de el caserío*; The Carpenters-en *I need to be in love*; Chuecaren *La Gran Vía (*Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoarekin batera urte bukaeran antzeztu zuten zarzuela); eta Duke Ellington-en *Sofisticated ladies*.

### Dirty Brothers, Never Surrender eta Xarma taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean

Bergarako Info7 irratiaren aldeko babes taldeak antolatuta, Dirty Brothers, Never Surrender eta Xarma taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 22:30ean, gaztetxean. Babes taldeko kideek aurreratu dutenez, dagoeneko entzun daiteke irrati hori FMko 100.2an. Hala ere, oraindik "diru asko" behar dute antena ordaindu ahal izateko, eta, ondorioz, dirua batzeko kanpainarekin jarraitzen dute. Hain justu ere, biharko gaztetxean antolatu duten kontzertuan batutako dirua zeregin horretara bideratuko dute. Bestalde, irratiko bazkide egin daitekeela ekarri dute gogora, hilean 7 euroren truke (Arranon dago aukera).

### 'San Adriango azeria' eta 'Celda 211' filmak emango dituzte aste bukaeran Zabalotegi aretoan

Domekan, 17:00etan, Juanba Berasategi zuzendariaren *San Adriango azeria* –adin guztiak– ikusteko aukera egongo da Zabalotegin, eta 19:30ean, berriz, Daniel Monzonek zuzendutako *Celda 211* –13 urtetik gorakoendako.

Umeen saioari dagokionez, 2 euro da prezioa; eta nagusiena, 3 euro. Leihatila saio bakoitza hasi baino ordubete lehenago zabalduko dute.

## Bigarren itzulia, etxean, garaipen batekin hasi nahi du Soraluce BKE taldeak, El Pilarren kontra

Portugaleten izandako sentsazio txarrak uxatu nahi ditu Muniategiren taldeak bihar, 18:30ean

X.U. | BERGARA

Etxean jokatutako azken bi norgehiagoketan berdindu egin du Soraluce BKE taldeak, baina, bi hilabete garaipenik batu barik egon ostean, Muniategiren mutilek bi puntu batu nahi dituzte bihar arratsaldean (18:30), sailkapenean bosgarren postuan dagoen El Pilar talde gasteiztarraren kontra.

Egitekoa ez da erraza, lehenengo itzulian, Gasteizen, bergararrek 34-31 galdu zuten. Arabarrena jokalari beteranoz osatutako taldea da. Beteranotasuna eta azkartasuna, baina, ez dira berba kontrajarriak, eta El Pilarrek joko oso bizia egiten du; joko horrek orain arte emaitza oso onak eman dizkie, orain arte batu dituzten 18 puntuek erakusten duten moduan.

**Sentsazio txarrak uxatu**

Hala, biharko norgehiagoka erabili nahi dute bergararrek joan den astean Portugaleten bizitako sentsazio txarrak uxatzeko. Mahoneroek gol bakarreko aldeagatik galdu zuten, baina punturen batek ihes egin zien sentsazioarekin geratu ziren.

Bestalde, kadete mailako mutilen taldeak ere etxean jokatuko du asteburuan. Bihar 16:30ean dute hitzordua, Zarautz taldearen kontra.

## Saskibaloian, azkenaren kontra ezin da hutsik egin

X.U. | BERGARA

Joan den astean Ruibal talderi sekulako errepasoa eman ostean (65-30), eta azken asteotan izandako bolada onari esker, Soraluce BKE taldeko mutilak aurrealdeko postuetara gerturatu dira berriro ere. Liga hasieran, bazirudien igoera postuetan egoteko bizpahiru despiste zituenak aukera guztiak galduko zituela, baina guztiek egin dute akatsen bat edo beste, hemen ez dago menperaezinik.

Joan den astekoaren ondoren, badirudi domekako partidua (17:00, Labegaraieta) saskibaloi jai bilaka daitekeela. Gabi Jatetxea taldea azkena da sailkapenean.



konfiantzaz

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

# 40 urte hezten eta berrizten

**40 URTEK EMATEN DUTEN**

Konfiantza
Esperientzia
Heldutasuna
Sendotasuna
Ziurtasuna

**IKASTOLA IZAERAK EMATEN DUEN**

Konfiantza
Berrikuntza
- pedagogian
- metodologian
- instalazioetan

Euskalduntasuna
Aniztasuna
Elkartasuna
Herritartasuna
Zabaltasuna
- mundura
- pentsamoldetara
- desberdinatasunera

**ZUEI LAGUNTZEKO**

Zerbitzu osagarriak:
- jantokia
- umezaintza
- garraioa
- harrera gela

Ordutegi malgua (07:00-19:00)
Egutegi zabala

**ZUEN SEME/ALABARI LAGUNTZEKO**

Logopeda
Psikologoa
Orientatzailea
Psikomotrizista
Hezkuntza behar berezietarako adituak



ARANZADI ikastola



## OTSAILAK 1etik 11ra

**BISITA GIDATU PERTSONALIZATUAK.**
09:30etik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.
(Libre gaudela ziurtatzeko hobe da aurrez deitzea)
Gure proiektua martxan ikusiko duzue haurrak gelan dauden bitartean. Zuzendaritzaren laguntzaz, ikastetxea ezagutu, haurrak beren egitekotan ikusi eta nahi dituzuen argibideak jasoko dituzue.

## URTARRILAK 31, astelehena

18:00h **HITZALDIA**
Zer gertatzen da 2 urterekin?
Hizlaria: Nerea Mendizabal
18.30h **IKASTOLARI BURUZKO BILERA INFORMATIBOA**

## OTSAILAK 6, igandea

**ATE IREKIAK.**
11etatik aurrera: tailerrak, eskulanak, jokoak, elkarrizketak zuzendaritzarekin…

40 urteurrena ARANZADI ikastola

Tel: 943 76 90 71
San Martin Plaza 4
20570 Bergara
*bergara@ikastola.net*
*www.aranzadiikastola.org*

2010 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria

# I. areto-bizikleta maratoia egingo dute otsailaren 26an Zubikoan

## 18 urtetik gorakoek izena eman dezakete otsailaren 23ra arte

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Oñatiko Kirol Zerbitzuek antolatuta, I. areto-bizikleta maratoia egingo dute otsailaren 26an. "Ekimen horrekin, ibarrean areto-bizikleta egiten duten pertsonak batu gura ditugu; dei berezia egiten diegu kirol hori egiten dutenei", esan digu Oskar Carrascalek, Kirol teknikariak.

Dagoeneko zabaldu dute izenemate epea. Otsailaren 23ra arte dago matrikula egiteko eta 18 urtetik gorakoek parte har dezakete. Bailarako edozein kirol zerbitzutan areto-bizikleta egiten dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 18 euro.

**DATUA**

**130**

BIZIKLETA

Bizikleta kopuru hori ipiniko dute otsailaren 26ko maratoirako. Bailarako kiroldegietatik ekarriko dituzte.

### Irakasle gonbidatua

Antolatzaileen asmoa da hiru orduko maratoia egitea, eta 130 bizikleta jarriko dituzte. "Debagoieneko gainerako kirol zerbitzuetatik hartuko ditugu bizikletak, ahalik eta pertsona gehien batzeko", diote antolatzaileek.

Esfortzu handiko ekitaldia izango da, eta saioak irauten duen bitartean atsedenerako bi edo hiru tarte egingo dituzte.

Gainera, bailaran areto-bizikleta zerbitzua ematen dutenak izango dira irakasleak. Baina gonbidatu berezia egongo dela esan digute: "Punta-puntako irakaslea izango da. Oso ezaguna eta maila handikoa".

# Zuazolako ikasleek artelanak egingo dituzte naturarekin

## Garaion Naturarteak gidatuta saioa egingo dute 4. mailako DBHko eta Batxilergoko ikasleek

**M.B.** | OÑATI

Garaion Naturarteak *Auzolana herrira* ekimenaren lehen saioa egingo du gaur: Zuazola institutuko ikasleek artelanak egingo dituzte naturatik hartutako elementuekin. Eguraldiaren arabera, unibertsitate aurrean edo Bidaurretan (eguraldi ona egiten badu) egingo dute, 08:00etatik 14:00etara arte. Ordu horretan erakutsiko dituzte lanak. Gainerako ikasleek beste ekitaldi batzuk egingo dituzte: DBHko lehen eta hirugarren mailetakoak Donostiara joango dira eta DBHko bigarrenekoak Araotzera.

Zuazola-Larraña institutuak antolatu duen hamabostaldiaren barruan ate irekiak ere egingo dituzte: bihar Errekalde herri eskolan eta otsailaren 3an Zuazola institutuan.

Bestalde, hurrengo asterako tailerrak antolatu dituzte; besteak beste, grafitiak, bitxigintza, argazkigintza, gozogintza, ipuin kontaketa eta bertsolaritza. Otsailaren 1ean eta 3an egingo dituzte tailerrak institutuko irakasleekin.

### Balleta Donostian

Izen handiko bi protagonistak izango dute lekua datorren astean: ETBko *El conquistador del fin del mundo* saioan diharduen Irati Anda eskalatzaileak, batetik, eta Andoni Egaña bertsolaria,k bestetik. Hitzaldi bana egingo dute: Andak hilaren 31n 14:30ean eta Egañak otsailaren 10ean 18:00etan. Azken horrek gurasoendako berbaldia egingo du.

Kultura hamabostaldia bukatzeko Donostiara irteera egingo dute ballet klasikoa ikustera; hain zuzen ere, *Magnifique* delako ikuskizuna. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Biarritzeko Malandain balletak egingo dute emanaldia.



Umeak musikoterapia saio baten. | ELKAR HEZI IKASTETXEA

# Musikoterapia tailerra egingo dute Elkar Hezin bihar

**M.B.** | OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta, musikoterapia tailerra egingo dute bihar eskolan bertan. 0-3 urte arteko umeendako eta haien gurasoendako saioa da. Ordubeteko tailerrean, musika erabiliz umeen suspertze goiztiarra landuko dute. Tailerra bukatu ondoren ateak zabalduko dituzte eskola erakusteko.

### Hitzaldi-tailerra

Bestalde, Elkar Hezin beste hainbat ekitaldi egingo dituzte otsailean. Jose Amiama psikologo eta pedagogoak hitzaldi-tailerra egingo du otsailaren 9an. Etxeko lanen gainean jardungo du Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoekin.

Otsailaren 10ean eta 24an Izar Mendia psikologoak *Oinarrizko ohitura osasuntsuak* eta *Frustraziorako tolerantziaren beharra* hitzaldiak egingo ditu. Biak ala biak 2-6 urte arteko haurren gurasoendako izango dira.

Azkenik, otsailaren 28an Boni Ofogo afrikar ipuin kontalariak saioa egingo die 6-9 urte arteko umeei, eta haien gurasoei.

**NIRE USTEZ**



**JABIER ALTUBE**

# Kooperatibismoa

Munduko gobernu eta gizarte erakunde aurrerakoienek Mondragon fenomenoa aztertzen dute lankidetza, parte-hartze eta berrikuntza adibide direlako. Baina bazkideen aldetik kooperatiba izaeraren inguruko galera dagoela sumatu dut. Badakit kooperatibismoa ez dela sistema perfektua, baina ez dut ezagutzen munduan ekonomia, gizarte eta lan eremuetan justuagoa eta solidarioagoa den beste sistemarik. Baina nortasun kooperatiboaren galera bat dago. Zergatik? Ez da erraza erantzutea, arrazoi bat baino gehiago egongo da ziurrenik; balio gabezia, kontsumismoa, indibidualismoa…

Etsi egin behar dugu? Ez. Ekonomia espekulatzailea ekonomia errealari gailentzen ari zaio, eta kooperatibak eta eurek ordezkatzen duten eredua inoiz baino beharrezkoagoak dira. Nortasun korporatibo horren galeraren arrazoiak aztertu behar ditugu: nortasun kooperatiboa eguneratu eta erakargarri egin behar da, gizartearen eraldaketan laguntzen jarraitzeko. Horretarako, liderrak behar ditugu: formazioa duten pertsonak, kudeaketarako gaitasuna dutenak, kooperatiba bokaziodunak, taldean lan egiten dakitenak, epe ertain eta luzera estrategia argiak zehaztuko dituztenak. Baina, bereziki, beti arrakastara garamatzaten balioak indartu behar ditugu: umiltasuna, zintzotasuna, prestutasuna, eraginkortasuna…

**"Liderrak behar ditugu: taldean lan egiten dakitenak…"**

**OHARRAK**

**ANTZERKIA**

*Vaya semanita* antzezlana ikusteko emanaldi bikoitza egingo dute Santa Anan: 20:00etan eta 22:30ean. Sarrerak agortuta daude.

**ERRETIRATUEN SAIOA**

Ikusi Makusi antzerki taldeak *¿Problemas de pareja? La solución aquí* antzezlana eskainiko du bihar, 22:00etan, Santa Ana antzokian.

# Aste bukaerako eski irteera bertan behera utzi dute

**M.B.** | OÑATI

Aloña Mendi eski sailak aste bukaerarako esku artean zuen irteera bertan behera geratu da. "Elur gutxi dago, eta, azken orduan, 15 laguneko talde bat damutu egin da. Otsailekoa prestatzen hasiko gara, orduko elur gehiago egongo dela esperantzarekin, baina ez dakigu zer-nolako eguraldia egingo duen", esan digu Juan Kruz Urtatzak.

### Hiru irteera

Denboraldiko lehen eski irteera bertan behera geratu arren, beste hiru irteera egingo dituzte Aloña Mendikoek: aste bukaerakoak bi eta aste osokoa bestea. Hain zuzen ere, Baqueira Bereteko irteerak egingo dituzte otsailaren 25etik 27ra eta martxoaren 25etik 27ra eta aste osoko irteera, Tignes-Val Disere estaziora, apirilaren 22tik 30era. Irteera horien gaineko informazio gehiago gura duena (irteera ordua, prezioak, egonaldia…) astelehenetan eta eguaztenetan joan daiteke Aloña Mendi tabernara. Han egongo dira arduradunak 19:00etatik 20:00etara.

Gainera, eski-zeharkaldiko ikastaroa esku artean dute antolatzaileek. Martxoaren 11n, 12an eta 13an egingo dute, Baqueiran. Partaide bakoitzak duen mailaren arabera hiru talde egingo dituzte: maila baxua, ertaina eta altua. Hori horrela, talde bakoitzak zeharkaldi ezberdinak egingo ditu, zailtasunaren arabera.

### Forfaitak merkeago

Bestalde, Aloña Mendik Aragoiko eski estazioekin duen hitzarmenari esker, Formigal, Astun eta Candanchuko forfaitak merkeago erosi ahal dira Oñatin. Hain zuzen ere, Mendizabal kirol -dendan.




egitaraua

urtarrilak **22:**
*GORAKADA* antzerki taldearen,
*"JULES VERNEREN ABENTURAK"*.

urtarrilak **29:**
*MUSIKOTERAPIA TAILERRA*

**ATE IREKIAK**
*12:00etan*

otsailak **9:** *HITZALDI TAILERRA*
*ETXERAKO LANAK*: Zentzua, helburua, ondorioak, onurak eta arriskuak.
JOXE AMIAMA.

otsailak **10** eta **24:**
*HITZALDI TAILERRA*
- *Oinarrizko ohitura osasuntsuak.*
- *Frustraziorako tolerantzia beharra.*
IZAR MENDIA ISEP CLINIC-eko Psikologoa.

otsailak **28:** ***BONI OFOGO,***
afrikar ipuin kontalaria eta kultur bitartekaria.
- Gurasoentzat: ***IPUINAK NOLA KONTATU***
- Guztiontzat: *IPUIN SAIOA*

***AURREMATRIKULAZIO epea:***
***URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra arte***

***idazkaritza ordua: 08:30-13:00 / 14:30-18:00***

Haurtzaindegia 943.71.82.72 Haur eta Lehen Hezkuntza 943.78.05.11 D.B.H eta Batxi. 943.78.28.70
(HH, LH) Arantzazuko Ama kalea 18 (DBH eta Batx.) Santa Marina 2. *idazkaritza@elkarhezi.com*

*www.elkarhezi.com* facebook *http://www.facebook.com* YouTube *http://www.youtube.com*

# Izurietako bidearen konpontze lanak egun batetik bestera hasteko gertatzen dabiltza

Aretxabaleta–Aramaio bide zatia ere konpontzeko dago oraindik, nahiz eta lanak esleituta egon

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Uztailean esleitu zituen Bidegik Izurieta auzora doan bidea (GI-3132) konpontzeko lanak, baina 2011ko urtarrileko azken astean oraindik hasteko daude. Eibar-Gasteiz autobidearen lanek eragindako kalteak dira, hain zuzen, konpondu beharrekoak, eta asteon hasi dira materiala ekarri eta inguruak gertatzen. Hala ere, udal ordezkariek ez dakite lanen hasiera datarik.

### Bide-zorua berritzea

GI-3132 errepidearen bide-zorua berrituko dute Campezo Construccion enpresako langileek, egoera eskasean dagoelako, eta horretarako bi hilabete beharko dituztela iragarri dute. Lehenengo inguruko bide bazterrak txukunduko dituzte garbiketa lanak eginda, baita ur arekak egokitu ere. Horiek guztiak egindakoan lurzorua berrituko dute, eta bukatzeko seinaleztapen lanak egingo dituzte: marra zuriak margotu bidean, eta seinale bertikalak eta bidearen babesgarriak jarri.

Ez da Bidegiren eskuetan dagoen lan bakarra. Izan ere, GI-3920 (Aretxabaleta-Aramaio) errepide zatia konpontzeko lanak ere esleituta ditu uztailean Proyectos y Obras Pabisa enpresari. Langile horiek Basagoitiko bide-zubiaren eraikuntza obrengatik kaltetua gertatu zen zatiaren ardura izango dute: bidearen desbiderapena, hain zuzen.

Bi lan horiek ia 800.000 euroko kostua daukate.



Bidearen lanak hasteko materiala gertu, martitzen goizean. | M.A.

**DATUA**

**2**

HILABETE

**Izurietako bidearen lanek bi hilabete iraungo dute: bazterrak txukundu, ur arekak egokitu eta lurzorua berrituko dute.**

### Oro auzoan bidea egiteko

Lanik garrantzitsuenak Bidegik zuzenean esleitu baditu ere, beste hainbat egokitze lan Udalaren eskuetan utzi zituen iaz hitzarmen baten bitartez. Horien artean daude Ametzagako bidearen konponketa lanak; Apotzagaetxebarriko tunelaren irteera albotik Salluente ermitara doan bidearen hobekuntza; eta Egileor baserri osteko bideak egitea. Lan gehienak bukatuta daudela jakinarazi dute Hirigintza Saileko teknikariek.

Oraindik egiteko dauden lanen artean Oro auzoan egin beharreko bidea dago. Lanak esleitzeko oinarriak gertatzen dabiltza eta egunotan egingo dute esleipenaren jakinarazpena: "Ostean hasiko dira lanak, baina eguraldiak zeresana izango du; izan ere, oso gune maldatsua da eta lur mugimenduak egin behar dituzte pista egiteko", diote Hirigintzako teknikariek. Bestalde, Egileor baserri inguruan egindako lanetan lur begetala bota eta landareak sartzeko dauzkate.

Udalak izan arren lan horien guztien ardura, Bidegik bere gain hartuko du diru kostua, hitzarmenean zehazten denez.

## Otsailean banatuko ditu txartelak Aretxartek

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkartea isilik egon da azken asteotan, urte berrian oraindik ez duelako antolatu inolako ekimenik. Abenduan egin zuen azken zozketa; txartel saritua 75.060 izan zen eta Txilarra belar-dendan banatu zuten. Segituan agertu zen txartelaren jabea, Eneritz Zubizarreta, eta hark eroan zuen Gabonetako otzara ederra.

Bada, 2011n zozketa horiekin jarraitu egingo dutela jakinarazi gura diete herritarrei Aretxarteko zuzendaritzako kideek. Otsailaren 15ean hasiko dira berriro txartelak banatzen bezeroen artean, eta, sari politak izango direla iragarri arren, ez dute gehiagorik aurreratu gura, "ezustekoa" izan dadin.

Bestalde, II. Ixadebalde merkealdien azoka egin gura dute Aretxarteko kideek. Hori gertatzen hasita daude, eta, data zehaztu barik izan arren, seguru asko martxoaren erdialdera egingo dute. Irailean egin zuten lehenengoz azoka, eta orduan oso gustura geratu ziren parte hartutakoak.

## Ondo idazteko ikastaroa astelehenean Loramendirekin

M.A. | ARETXABALETA

Kultur Eskola jarri du abian Loramendi elkarteak, eta ikastaro eta ekimen asko iragarri ditu hemendik eta apirilera bitartean. Astelehenean hasiko dute lehenengo ikastaroa, Literatura Eskolaren barruan dagoena: *Zela idatzi ondo ulertu dein*. Huhezi fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioko irakasle Beatriz Zabalondok egingo ditu gidari lanak eta idatzizko komunikazioko gaitasunak landuko ditu. Sei saioko ikastaroa izango da, astelehen eta eguaztenetan (18:00-20:30), otsailaren 16ra arte.

### Erretiratuendako antzerkia

Bestalde, otsailean erretiratuendako antzerki ikastaroa jarriko dute abian Antzerki Eskola barruan, Jurgi Etxebarria antzezle aretxabaletarrekin. Martitzen goizetan izango dira eskola horiek (10:30-12:00) eta ariketen eta jolasen bidez antzerkirako dohainak landuko dituzte erretiratuek.

Bi ikastaro horietarako izenemate epeak egunotan itxiko dituzte; hortaz, lehenbailehen jo Loramendira argibide gehiago gura izanez gero –943 77 09 70 - 685 75 67 29; *loramendielkartea@gmail.com*.

## Garapen iraunkorra jolasen bitartez

Garapen iraunkorra zer den ikasten dabiltza Basabeazpiko neska-mutikoak egunotan. Batetik, inguruko lorategiak txukundu dituzte eta zaintzeko konpromisoa hartu; bestetik, energia berriztagarriak zeintzuk diren ikasi dute –eguzki plakak, haize errotak...–; eta azkenik, etxean sortutako hondakinekin zer egin landu dute –jostailuak egin botatako materialekin...–. Hondakin bakoitza zein edukiontzitara bota behar den ere ikasi dute eskulanak eta jolasak eginda.



M.A.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

# Keu Agirretxea izango da gaur gauean Inkernun

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik kontzertua izango da gaur Inkernu tabernan. Keu Agirretxea & The Fignuh Experience taldeak joko du, 23:00etan. *Denbora vs kantuak* izeneko lana aurkeztuko du Agirretxeak (gitarra eta ahotsa), Iñaki Jaiok (bateria), Isusko Ramonek (saxoa) eta Mikel Arakistainek (baxua) osatzen duten taldeak. Formatu akustikoan grabatutako hamar kantu berri jasotzen ditu lanak, baxu, perkusio intimista eta tarteka haize musika-tresnak ere bidelagun dituela. Istorio xumeak eta hurbilak kontatzen ditu horietan, egunerokotasuneko gogoetatik ateratakoak. Bada, Mikel Etxaburuk, Aitor Goenagak eta Kirmen Uribek lagundu dute zenbait kantutan.

Keu Agirretxea (Ondarroa, 1973) ez da geldirik egotekoa. Gitarra-jotzaile moduan ezagutu bagenuen ere, aspaldi hasi zen konposatzen eta egindako guztia jendaurrean erakusten. Uek izenpean lan instrumentalak lehenengo eta, talde izaera emanda, rocka geroago. Hori gutxi balitz, Keu Agirretxea izena erabilita formatu akustikoan ere ibiltzen da; *Une akustikoak* lanaren ostean, *Denbora vs kantuak* diskoarekin dator orain.

**Go Chic otsailean**

Bestalde, Aitzorrotzek iragarri du otsailaren 18an Go Chic Taiwango nesken taldea izango dela Inkernuko agertokira igoko dena. Elektro-pop hippie estiloa lantzen duen taldea da.



Keu Agirretxea abeslaria. | AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA

## NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



# Heziketan aldaketa giroak

Eguneko hezitzaileoi (guraso eta irakasle) seme-alaben geroa erabakitzen laguntzeko garaian, zalantzaz beteriko garaia tokatzen ari zaigu bizitzea. Historiari begirada bat botatzen badiogu arrazoien bat edo beste aurkitu dezakegu.

Lan baldintzari so egiten badiogu, gure arbasoek eskulanari ematen zioten garrantzia. Fabriketan makinak sartzearekin bat, hauek kontrolatzeko pertsona obedienteak behar ziren, pentsatzea eta eskulana ezberdindu egin zituzten. Orain, aldiz, industrializazioaren ondorengo garai honetan, pentsatzeak, eta batez ere berritzeak, indarra hartu behar duela adierazten zaigu.

Informazioari dagokionez, gizakiak eraldaketa handiak egin ditu. Kontu hartu dezagun hitza ere ez zegoen garai haiek, baita idatzia asmatu zenekoa ere. Inprentak ere itzeleko iraultza suposatu zuen eta telegrafoak zer esanik ez. Hori guztia gutxi balitz, Internet dela medio, gaur goizean Facebooken idatzi dudana segundo gutxi batzuetan mundu guztira zabaldu da. Nire aitajauna zenak burua altxatuko balu, deabru kontuak direla esango luke. Honek guztiak jakintza berriaren sorrera asko bizkortu du.

Nire esperantza, ditugun zalantzak ditugula ere, gure eta hurrengo belaunaldien artean, ditugun berritzeko gaitasun eta informazio hauek guztiak mundu honek dituen arazoak (pobrezia, gerrate, ingurumen, energia...) konpontzeko izan daitezela da.

## Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketak etzi

Martxan da Euskal Herriko III. mus txapelketa. Etzi, domeka, jokatuko dituzte kanporaketak, Inkernu tabernan, 16:00etan. Tabernan bertan eman ahalko da izena; bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Aurten ere sari potoloak banatuko dira: bikote irabazleak txapela, garaikurra, 3.000 euro eta nazioartera lau lagunendako bidaia irabaziko du; eta bigarrenak, garaikurra, 1.500 euro eta Kanariar irletara bi lagunendako bidaia.

## Sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa

Sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa antolatu du Amuskak. Eskolak otsailaren 10etik martxoaren 17ra izango dira, eguenetan, 18:00etatik 20:00etara.

Interesatuek 699 786 684 telefonora dei dezakete, edo *amuska-esko@hotmail.com* helbidera idatzi. Emakumeen elkarteko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 20. Ikastaro irekia bada ere, emakumeek lehentasuna izango dutela azaldu dute antolatzaileek.

Pausoka HAUR ESKOLA

2011-2012 ikasturtea

Izena ematea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra arte

Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara





TALDE EGOKITUAK
- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA
- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK
- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



Txiki txikitatik jolasten heziz

BELORRIETA 8. ARETXABALETA. Tel.: 943 77 03 77

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen bada giro!

**Anduaga Jatetxea**



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54




DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

**OTZETA JATETXEA**



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67




Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

**B A S A B E**




Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68




Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**IOSU**
*taberna*
*harategia*

Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



# Astelehenean hasiko dira atez atekoari buruzko auzokako bilerak

## Joan den astelehenean egin zen lehen informazio-bileran jende askok parte hartu zuen sistemaren nondik norakoen berri izateko

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Martxoaren 7an jarriko da martxan hondakinak batzeko atez ateko bilketa selektiboa Antzuolan, eta herrian ahoz aho dabilen gaia da. Izan ere, orain arte hondakinekin genituen ohitura asko aldatu egin beharko ditugu sistema berriarekin. Zalantza asko daude oraindik, eta horiek argitzeko hitzaldia egin zuen Udalak astelehenean; Torresoroako areto nagusia lepo bete zen.

Pedro Iturbe alkateak esan zuen orain herrian zaborraren %30 birziklatzen dugula eta oraingo bilketa sistemarekin ezin dela hortik gora egin. Atez atekoarekin, aldiz, %80 birziklatuko dugu. Iturbek azaldu zuenez, atez atekoa martxan jartzeko 250.000 euro inguruko inbertsioa egingo du Mankomunitateak. Atez atekoaren emaitzak lehenengo egunetik igartzea espero dute.



Antzuolako Udaleko eta ibarreko beste udal batzuetako ordezkariak, bulegoaren inaugurazioan. | USOA AGIRRE

### Atez ate herrigunean

Hitzaldian azaldu zutenez, atez ateko bilketa herrigunean egingo da; landa eremuetan ekarpen-guneak egongo dira giltza batekin itxita. Gune horietan edukiontziak egongo dira: urdina paperarendako, horia ontziendako, marroia organikoendako eta grisa errefusarendako (birzikla ezin daitekeen hondakinak).

Herrigunean hondakinak zintzilik lagatzeko zutabeak egongo dira. Hondakin bakoitzak egun bat eta ordutegi bat izango du ateratzeko: organikoa astean hirutan; ontzi arinak astean bitan; papera eta kartoia astean behin; eta errefusa astean behin. Orain arteko edukiontziak kendu egingo dira; beirarendako iglu berdea bakarrik lagako da.

Astelehenean egingo da auzokako lehenengo bilera. Landa -auzoetako bizilagunak bilduko dira, 18:30ean, Torresoroan.



**BEATRIZ GABARAIN**

"Ez dut sistema ondo ezagutzen, baina badakit Hernanin, adibidez, beste herri batzuetara eramaten dutela zaborra. Arrainen tripak nola edukiko ditugu egunetan etxean?".



**IBON GARITANO**

"Deserosoa eta antiestetikoa iruditzen zait, baina probatu egin beharko dugu eta ea dena ondo irteten den. 5. edukiontziaren sistema ez zait txarra iruditzen".



**MIGEL ANGEL LIZARRALDE**

"Atez atekoaren alde nago. Saiakera egingo dugu serio eta ondo joango da. Gauza berriek beti ematen dute beldurra, baina beldurrak laga eta apustua egin behar da."

### Atez atekoaren beste aldea

Herritar talde batek inposizio modura hartu du atez atekoa ezartzea Antzuolan. Iñigo Ramirez de Okarizek talde horren izenean berba egin digu: "Garrantzi txikiagoa duten gaietarako erabili du Udalak metodologia parte-hartzailea; honetan ez". Euren iritziz, egokiena litzateke herrian aurretik eztabaida egin eta ondoren erabakitzea.

Atez atekoaren beste ikuspuntuak ere aintzat hartu behar direla uste dute, ez Udalarena bakarrik. Horregatik antolatu zuten atzoko hitzaldia.

## NIRE USTEZ



**ALAITZ JAUREGI**

### Beeeti prixaka!

Zenbat aldiz esaten dosten: "Hartu dana trankillau... zure egunak 48 ordu euki biharko litxuzke! Eon zaitxe trankil...".

Ba bai, arrazoi guztia, gaur egun (neu lehenengua) ez dou denboraik hartzen ezta atsalde bat pasiauaz pentzatzen pasatzeko be, edo denbora nahikuakin kirola disfrutauaz itxeko be, edo ta liburu bat irakurri ta irakurri egoteko be prixa barik. Ez dot esaten ez dounik aisialdixa apobetxatzen, baina zela?

Ba korrika baten! Gimnasiora juteko ordubete justu-justu, (ta espriñian irten harutz jun bihar dulako), eta ordu erdi daukatela irakurtzeko ta benga azkar denboria pasau baino lehen!

Kalian gaen bitxartian hurrengo eguna antolatzen gare, ta ezagunen batekin geratzen ganian berbetan, bi hitz da: "Jun ein biot e, prixaka nabil da!" Behin bizi biher ta *contra reloj* beti? Gainera zenbat eta azkarrau ibili orduan da denbora gutxiau ta gauza gehixau eitteko, ez dauka bukaeraik.

Ez dot esaten denboria ezer ein barik gora begira pasau bihar dunik, baina txipa zela aldatu pentsatzen hasi geinke, geure onerako izengo da ta.

Akaso ez gaitxu gehixau betetzen atsalde oso bat biharra daukan lagun bati entzuten laguntziak, azkar baten pasiaria, kafia, errekauak, garbiketak, etab, etab, etab, eitten jardutiak baino?

**"Behin bizi bihar ta 'contra reloj' ibili bihar ga beti?"**

## OHARRAK

**FUTBOLA**
Antzuolako erregional taldeak Aretxabaletaren aurka jokatuko du Eztalan. 16:00etan izango da partidua, zapatuan. Aretxabaleta hirugarren dago sailkapenean; Antzuola, berriz, laugarren.

**PALA PARTIDUA**
Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Olaldeko mutilek udaberriko txapelketa Biarritzarrak taldearen kontra. 20:00etan, pilotalekuan.

**GPS IKASTAROA**
Andoainen otsailaren 19an eta 20an egingo den GPS ikastarorako izena emateko aukera egongo da datorren eguaztenean, otsailak 2. Arrolaren lokalean eman ahalko da izena: Olaran etxeko 3. gelan, 19:30etik 20:30era bitartean.

# Herriko mus txapelketa: domekan finala

## Egubakoitzean jokatuko da txapelketako laugarren eta azken kanporaketa

**USOA AGIRRE** | ANTZUOLA

Dagoeneko egin dira hiru kanporaketa eta domekako finalerako sei bikote aukeratuta daude. Gaur, egubakoitza, Gailur tabernan 22:15ean egingo den kanporaketatik irtengo dira finala jokatzeko falta diren beste bikoteak.

Joan den aste bukaeran egin ziren bigarren eta hirugarren kanporaketetan bikote hauek sailkatu ziren herriko finalerako: Agurtzane Loidi eta Nekane Berasategi; Joan Simon Aristi eta Beñar Kortabarria; Peio Yurrita eta Migel Angel Cañizares eta Josu Larrea eta Iker Muruamendiaratz. Lehenengo kanporaketan sailkatu zirenak, berriz, hauek dira: Txomin Alberdi eta Iñaki Agirre, eta Xabi Altzelai eta Gotzon Gabilondo. Sei bikote horiei gehituko zaizkie gaurko kanporaketako irabazleak. 4-8 bikotek izena emanez gero, bikote bat pasako da finalera; 9-12 bikotek izena emanez gero, bi; eta 13-16 bikote apuntatuz gero, hiru.

### Domekan, Arin jatetxean

Txapelketako oinarrien arabera, zortzi edo lau erregetara joka daiteke, bikoteen akordioz. Kanporaketan 3, 4 edo 5 bikoteko taldetan banatuta ligaxkak egingo dira, zortzi hamarrekodun bi usteletara. Taldeko irabazleek, herriko finalera zeintzuk pasatu zortzi hamarrekodun hiru usteletara partida bakarra jokatuko dute; herriko finalean ere bai.

Finala domekan, hilak 30, jokatuko da Arin jatetxean, 16:30ean. Orduan jakingo dugu nork ordezkatuko duen Antzuola otsailean egingo den Gipuzkoako kanporaketan. Martxoaren 12an izango da Euskal Herriko finala, Urruñan.

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO ZOZKETA

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

LIBURU SORTA
Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA
Bidali KLUBA REALA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

ERREMEIXUAK DVD-A
Bidali KLUBA DVDa
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.

SARI NAGUSIA
AZAROA-URTARRILA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
26 HAZBETEKO TELEBISTA
• 26"-ko TFT-LCD pantaila.
• Barneratutako TDT-a.
• HDMI.
• USB 2.0

EROSKI

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Urtebetetik gora iraun duen *behin-behineko* desbideratzeak hainbat kalte sortu dizkie aramaioarrei. | LEIRE KORTABARRIA

# Bide mozketaren kalte-ordainak jasotzeko auzitegietara joko du Udalak

## Herritarrek egin behar izan duten kilometro estrako euro bat eskatuko dute

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Hilabete bat gehiago izango da Aramaio Arrasaterako bide barik, gutxienez. Adifek hala jakinarazi zuen azken faxean: otsail amaierara arte ez da bidea zabalduko. Udalak, baina, zalantzak ditu, irekieraren azken epeak zehazterakoan atzerapenak izan dira -eta nagusi. Edozelan ere, irekiera data zehatza baino garrantzitsuagoa da azken urte luze honetan Udalak eta herritarrek jasan duten kalteen gainean berba egitea. Hala, eguazteneko osoko bilkuran onartu egin zen Udalak aditu baten laguntzarekin osatu duen erantzukizun eskaera aurkezteko txostena.

Txostenak Udalarendako eta herritarrendako kalte-ordainak jasotzen ditu, besteak beste. Asier Agirre alkatearen arabera, kalteak "handiak" dira; Udalarendako eta, noski, herritarrendako. Txostenean jasotzen den eskaera-zerrenda luzea da: eskaeron artean, herritarrek errepidearen desbideratzeagatik egin behar izan duten kilometro estra bakoitzeko euro bat ordaintzea eskatzen du Udalak. Kontuan izan behar da lur-jausia izan zen puntutik Ibarrara 8,20 kilometro egin behar izan dutela; betiko A-2620 errepidetik 2,65 kilometro zeuden.

**ESANAK**

**"Gutaz ahaztu ziren; itxi eta zazpi hilera heldu ziren politikariak"**
ASIER AGIRRE
ALKATEA

**"Madrildik egiten diren lanak dira eta euren premia trena egitea da"**
IÑAKI NAFARRATE
ARABAKO LURRALDE OREKARAKO DIPUTATUA

**DATUA**

**8,20**
KILOMETRO GEHIAGO
Lur-jausiaren puntutik 8,20 kilometro daude Ibarra auzora; lehen, 2,65 zeuden.

**Adif eta Diputazioa, "erantzule"**

Udalak uste du bi erantzule dituela bidearen auziak: AHTko lanak egiten dabilen Adif erakundea eta Arabako Diputazioa. Diputazioari "arduragabekeriaz" jokatu izana leporatzen dio alkateak: "Politikariak ahaztu egin ziren aramaioarrekin; adibide bat: errepidea itxi eta zazpi hilabetera, irailean, agertu ziren politikariak. Eta agertu ziren uztailean Diputazioan sekulakoak esan genituelako, bestela agertu ere ez ziren egingo".

Bestalde, Iñaki Nafarratek, Arabako Toki Administrazioko eta Lurralde Orekarako foru diputatuak eta Aramaioko alkate izandakoak, uste du Adif erakundearena dela ardura: "Ez dago eskubiderik 1.500 laguneko herri bat eta bertara joan-etorria egin behar dutenak urtebetez egoera horretan edukitzeko. Madrildik egiten diren lanak dira eta haien premiak ez dira Aramaio behar moduan komunikatuta edukitzea, baizik eta Lastertasun Handiko Trena egitea; Madrilgo agintariak ez dira batere sentiberak hemengo obrekiko".

Beraz, Udalak zerbitzu publikoaren funtzionamendu eskasa leporatuz auzitegietara joko du kalte-ordainak jaso ahal izateko.

## Caja Laboral Baskonia ikustera joateko irteera antolatu dute

Otsailaren 20rako ACB ligako Caja Laboral Baskonia eta CB Granada taldeen arteko partidurako irteera antolatu dute. Sarreraren prezioa bost euro da –autobusa barne–. Zuiako Koadrilaren kontu korrontean dirua sartu eta ordainagiria udaletxean aurkeztu behar da, urtarrilaren 31 baino lehen.

## Oraindik izena eman daiteke zoru pelbikoa indartzeko ikastaroan

Itur-Zuri emakume elkarteak antolatu du. Prezioa 90 eta 100 euro artean –bazkideek %10eko deskontua– ibiliko da. Izena emateko hiru telefono daude: 618 006 681 (Kristina), 945 445 281 (Amelia) eta 670 431 662 (Ana). Eskolako gela baten egingo dute, zoru pelbikoan, obstetrizian eta ginekologian adituak direnen eskutik.

## OHARRAK

**ARGI MOZKETA HILAREN 31N**

Argindar sarean egin beharreko hobekuntzak direla-eta, argia kenduko dute datorren astelehenean, hilak 31. Ibarran ez ezik, gainerako auzoetan ere kenduko dute argia, Oletan izan ezik. Argia kentzearen ordutegia honako hau izango da:
- Untzilla auzoan: 10:00-13:00
- Gainontzeko auzoetan: 10:00-11:00.
Goizean zehar, abisu barik, bueltatuko da argia.

ELGETA

# Agintaldiko aurrekontu txikiena 2011rako

## Aurrekontu "errealista" dela esan du alkateak; aldiz, oposizoaren esanetan, "pobrea" da eta "ez da beteko"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

2011rako 1.582.980 euroko aurrekontua onartu zuen udalbatzak martitzenean, hilak 25. Aurrekontu horren aurkako botoa eman zuten oposizioko hiru kideek, eta debate bizia sortu zuen gaiak.

Onartutako aurrekontuaren gainean askotariko irakurketak egiten dituzte Udal Gobernuak eta oposizioak. Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, "egoera ekonomikora egokitutako aurrekontua da". Oposizioak, berriz, dio "pobrea eta ez errealista" dela.

**"Gerrikoa estutzeko garaia"**

Agintaldi honetako azken aurrekontua da Udalak onartu berri duena. "Agintaldiko txikiena, mailegurik gabekoa eta oso errealista", adierazi du Erostarbe alkateak. "Elgeta moduko herri baten ezaugarrietara egokitua".

Alkatearen esanetan, bost irizpide nagusi izan dituzte kontuan aurrekontua planteatzerakoan: "Lehenengoa, gastuari muga ipintzea", esan zuen. Helburu horrekin, aparejadore plaza ateratzea aurreikusten du Udalak eta murriztu egin ditu zerbitzu juridikoen eta parkeen eta lorategien mantentze-lanetarako diru-lerroak. Gainera, jaitsi egin dituzte politikarien-dako dietak; 10.000 euro aurreztea ahalbidetuko du horrek. "Garaiotan etxean gerrikoa estutzea tokatzen bada, Udalean ere bai", esan zuen.

**Patronatuaren proiektua**

Oxel Erostarberen esanetan, zerbitzuetan ez da murrizketarik egongo eta inbertsioen atalean Udalak adarretatik helduko dio Domingo Iturbe patronatuaren inguruan dagoen proiektuari. "Hori aurrera doa", adierazi zuen alkateak. "Egoera ekonomikoa ez da ona, baina dirulaguntza garrantzitsuak lortu ditugu eta gehiago lortzeko gestioak egingo ditugu", aurreratu zuen.



Domingo Iturbe patronatuaren eraikina. | LARRAITZ ZEBERIO

**ESANAK**

**"Gure herriaren ezaugarrietara egokitutako aurrekontua da"**

OXEL EROSTARBE | ALKATEA

**"Paperean planteatzen dena ez da beteko; ez da erreala"**

IÑAKI UGARTEBURU | ZINEGOTZIA H1!

**AURREKONTUA**

| ATALA | KOPURUA |
|---|---|
| Pertsonala | 458.642 |
| Zabor zerbit. | 99.287 |
| D. Iturbe | 51.866 |
| Mizpirualde | 49.913 |
| Bideberri | 42.809 |
| Herriko jaiak | 36.000 |
| Asentzio | 20.088 |
| Ibilbide temat. | 18.000 |
| Mundumira | 8.000 |
| Alderdi politi. | 4.680 |

### Oposizioa: "Ez dugu aurrekontua sinisten"

Elgetako Abertzaleak koalizioa oso kritiko agertu da 2011ko aurrekontuarekin. "Zaila izango da, gure ustez, aurrekontu hori betetzea", adierazi du Iñaki Ugarteburuk. Gastu batzuen jaitsiera eta sarrera batzuen igoera ez ditugu errealak ikusten. Gezurra da zerbitzuetan ez dugula nabarituko. Udalaren kontratazioak sei hilabetekoak izatetik lau hilabetekoak izatera pasa dira, eta lehen soberan ez genituen mantentze-lanak (berdeguneak, parkeak...) txikitu egingo dira. Aurrekontu pobrea da, agintaldiko txikiena, eta pobretu egiten gaitu. Udalak 1.421.000 euroko zorra du. Agintaldi honetan bikoiztu egin da zor hori eta, gainetik, Udalak ez du aurrezten. Pertsonal politikarekin ere ez gaude ados. Aparejadore plaza ateratzea aurreikusten du Udal Gobernuak, Hirigintza Zerbitzuaren inguruan hausnarketa orokorrik egin barik".

### Etzi, domeka, 'Herrixa dantzan' ekimenaren barruan hileroko dantza saio irekia Espaloian

Inguruko dantzazaleek hileroko hitzordua dute Espaloian. Patxi Monteroren gidaritzapean ordu eta erdiko dantza saio irekia egingo dute, 19:00etan hasita.

Gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan,* Euskal Herriko eta Europako beste lurraldeetako dantza tradizional ludikoz osatua. Kalejiran, korroan, taldean, bikoteka... elkarrekin egiteko dantza errazak egingo dituzte. Saioz saio, gainera, errepertorioa zabaltzen joango dira.

### Elgetako Herri Eskolan ere astelehenean zabalduko da datorren ikasturterako aurre-matrikulazio epea

Urtarrilaren 31etik otsailaren 10era bitarte egongo da zabalik datorren ikasturterako aurre-matrikulazio epea Elgetan ere. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurre-matrikulak *on line* egiteko aukera emango du aurten lehenengo aldiz. Dena den, jakinarazi dute ezinbestekoa dela lehenengo aukerako ikastetxean dokumentazio osagarria entregatzea. Otsailaren 11 da horretarako azken eguna.

### Udalak, Bizikasirekin batera, sukaldaritza begetariano ikastaroa antolatu du otsailerako

Bina orduko sei saio proposatzen dituzte Udalak eta Bizikasik. Saio horiek otsailaren 8an, 11n, 15ean, 16an, 22an eta 23an egingo dira, 18:00etatik 20:00etara, Ozkarbi elkarteko sukaldean. Ikastaroa Sabrina Patok gidatuko du; sukaldaria eta Ekolapiko proiektuko kidea da. Ikastaroaren prezioa 15 euro da eta izenematea zabalik dago. Interesatuek udaletxera jo behar dute edo *kultura@elgeta.net* helbidera mezu bat bidali.

### 'Elgeta 2020' prozesu parte-hartzailearen azken bilera eguenean, otsailaren 3an, 19:00etan

*Elgeta 2020: zelako Elgeta nahi dugu* izeneko prozesu parte-hartzailearen azken bilera deitu du Udalak eguenerako, otsailak 3. Bertan, herritarrekin egin diren lan bileretan jasotakoak aurkeztu eta baloratu egingo dituzte, baita azken ondorioak atera eta lehentasunak finkatu ere. Parte hartu nahi duten herritar guztiei zabaldutako deialdia da. Udaletxeko areto nagusian egingo dute, 19:00etan hasita.

**III. FRONTENIS TXAPELKETA**

### Txapelketa mistoa ere martxan

Lau norgehiagoka jokatuko dira datozen bi egunotan. Bihar, zapatua, 16:30ean hasiko dira. Domekako partiduak, berriz, 10:30ean.

**ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK**

- Eneko Maguregi-Andoni Elortza / Oskar Sarasua-Santi Dosuna
- Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / A. Untzetabarrenetxear-I. Untzetabarrenetxea
- Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi / Adrian Gorostiza-Asier Osoro
- Oihana Gimenez-Aitzol Gimenez / Idoia Serna-Mikeldi Garmendia

LEINTZ GATZAGA

## Hiru erronka ditu Leintz Gatzagak datozen urteei begira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagak hainbat lan ditu egiteko eta hainbat hobetu behar; proiektu bat abian ere badu: Gatzagaingo ur depositua. Asteotan esleituko ditu lanak Etorlurrek, eta gero lanak hasi.

Hala ere, Eusebio Villar alkateak uste du hiru direla Gatzagaren erronkak datozen urteei begira: arau subsidiarioen berrikusketa; herrira doan GI-3310 errepidea zabaltzea; eta ur hodien hirugarren faseko lanak egitea.

**80 urteko ur hodiak**

Hiru lanok lehentasuna izan beharko luketela uste du, nahiz eta badakien samurra ez dela izango, egoera ekonomikoagatik.

Arau subsidiarioen berrikusketa 10 urtean behin egitea gomendatzen dute eta Gatzagan ez dute egin azken 25 urteotan; horregatik, askoz gehiago ezin dela atzeratu uste du. Errepideari dagokionez, 200 urtean hobekuntza lan garrantzitsurik ez dela egin dio Villarrek, eta "kurba nagusiak kendu eta errepide guztia zabaltzeko ordua" dela. Eta ur hodiei dagokienez, herriko hainbat gunetan orain dela 80 urtekoak dituztela eta aldatu beharrean daudela esan du.

## Dinamizatzailea izango da KZgunean datorren astelehen arratsaldean

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Astelehenean, hilak 31, Aitor Madrid dinamizatzailea izango da Pilar kalean dagoen KZgunean (16:00-20:00). Urtarrileko azken bisita izango da, eta 16 urtetik gorakoek zalantzak agertu eta ikastaroak egiteko tartea izango dute.

Eskainiko dituen ikastaro gehienak bi ordukoak dira, eta oso samur jarraitzeko modukoak. Horien artean daude: Google-ek eskaintzen dituen tresnen gainekoak –posta elektronikoa, mapak, egutegiak...– eta sare sozialen gainekoak –Twitter, blogak, foroak...

Otsailean ere izango da dinamizatzailea KZgunean: otsailaren 14an eta 28an. Goizez joango da orduan (09:00-13:00).

SOKATIRA

**Jone Elortza** | Sokatiralaria

# "Txinan tradizio handia du sokatirak; unibertsitate mailan txapelketak dituzte"

▸ Oñatikoak bi sari irabazi zituen DKSn

▸ Munduko sokatira txapelketan izan zen iaz



Jone Elortza oñatiarra, sokatirako keinua egiten. | GOIENA

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Jone Elortzak (Oñati, 1974) sari bikoitza jaso zuen joan den egubakoitzean, DKSren ekitaldian: batetik, Oñatiko Udalarena; eta bestetik, emakumezko onenaren saria ere jaso zuen. Iaz Gasteizko Badaiotz sokatira taldearekin Cesenaticon (Italia) egon zen, munduko sokatira txapelketan, eta finalera iritsi ostean Txinako talde batek kanporatu zuen. Orain, denbora batez atseden hartzeko asmoa duela adierazi digu.

**Zer egiten du oñatiar batek Gasteizen, eta sokatiran?**

11 urte nituela Oñatitik Gasteizera joan ginen bizi izatera, eta hango lagunekin batera hasi nintzen sokatiran. Hasieran denbora-pasa bat baino ez zen, baina ondoren serioago hasi ginen, Badaiotz sokatira taldean.

**Ikastetxean sortutako taldea zen? Unibertsitatean?**

Berez, Gasteizen beharrean Gasteiz inguruan dauden herritxoetan ibiltzen ginen sokatiran. 16 urte inguru nituela hasi nintzen sokatiran, baina ez zuen ikastetxearekin zerikusirik. Ondoren, unibertsitatean ikasten zebiltzan gazteak etorri zitzaizkigun taldera.

**Selekzio moduko bat da zuen taldea: arabarrak, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, nafarrak...**

[Barre] Bai, taldekide asko unibertsitate sasoian zeudenean etorri zirelako taldera eta ikasketak amaitu zituztenean euren sorterrira itzuli zirelako. Horregatik da gaur egun horren zaila entrenamenduak egin ahal izatea, jendeak urrunetik joan behar izaten duelako Gasteizera, entrenatzera.

**Euskal Herrian ze egoeratan dago sokatira?**

Orain ez dago momentu onenean. Aurreko urteotan zazpi-zortzi talde ibili izan gara, baina orain lau talde baino ez daude lehian. Araban, esaterako, lehen hiru talde geunden eta orain bakarra gaude.

Gizonezkoetan, berriz, egoera hobea da; zortzi talde inguru ibiltzen dira lehian, baina Badaiotzen, esate baterako, gizonezkoen taldea desagertu egin da. Hain zuzen, jende gutxi dabilelako, zortzi tiralariz osatutako taldeak egin beharrean lauko taldeekin hasi dira saioak antolatzen.

**Txapelketak horren talde gutxiren artean egitea ez da motibagarriena izango.**

Horrek amorratzen gaitu gehien. Gogor entrenatzeko asmoa duenak gero ez du saririk jasotzen; zertarako horrenbeste esfortzu? Hori da gure buruari egiten diogun galdera. Aurten, esaterako, ez dagoenez aparteko txapelketarik, lasai ibiltzeko asmoa dut. Datorren urtean, berriz, munduko txapelketa izango da berriro ere [Eskozian] eta, beraz, baliteke horrek urtea seriotasun handiagoarekin hartzeko balio izatea.

**"Talde gutxi daude eta gogor entrenatzeak ez du motibatzen"**

**Oraingoz, munduko txapeldunordeak zarete. Zelako txapelketa izan zen Italiakoa?**

Guztira, bost egun egin genituen Italian, eguaztenetik domekara arte. Hor taldekako eta selekzioen arteko kategoriak egoten dira, eta guk taldekakoan hartu genuen parte. Bada, zortzi edo bederatzi talde ginen: euskaldunak, japoniarrak, irlandarrak, holandarrak, Zeelanda Berrikoak... Finalerako sailkatu ginen, eta ordurako bai gu eta bai txinatarrak, beste finalistak, leher eginda geunden. Bi taldeen artean ez zegoen alde handirik, ez zuten guk baino indar askoz handiagorik, baina hobeto eutsi zioten azken saio horri.

**Zelakoak ziren txinatarrak? Hemen ezagutzen ditugun gehienak ez dira gorpuzkera handikoak.**

Ez pentsa, ez ziren handiak, baina izter ederrak zituzten, indartsuak ziren. Haiek Taipeikoak ziren eta han unibertsitatean bertan sokatira taldeak dituzte, eta kultura handia eta talde mordoa dago kirol horren inguruan.

**Aurrez pentsa genezake sokatira Euskal Herrian sortutako kirola dela, herri kirolen barruan kokatzen dugu, baina kirol jarduera unibertsala da.**

Bai. Diotenez, itsasoarekin harreman zuzena duen kirol jarduera da; itsasontzi edo txalupetatik tira egiten zuten lekuetan sortu zen kirol jarduera hau; horrenbestez, ez da hemen bakarrik praktikatzen.

**"Txinatarrak txikiak dira orokorrean, baina izter ederrak zituzten"**

**Zer behar da sokatiran ondo egiteko?**

Hasieran pentsa genezake indar handia behar dela, baina garrantzitsuagoa da teknika landua izatea. Eta adinarekin galtzen joan beharrean hobera egiten da kirol honetan, geroago eta esperientzia handiagoa batzen dugu -eta. Nik 50 urteko emakumezkoak ikusi izan ditut sokatiran.

**Kirol gogorra da?**

Baietz esan daiteke, sufritzen ikastea ezinbestekoa delako. Saihetsetan hartzen dugu min, soka bertan kokatzen dugulako. Kanpotik badirudi besoekin egiten dugula lan, baina bizkarra erabiltzen da gehien. Eta, noski, eskuak urratu egiten dira.

SASKIBALOIA

# Asobaleko taldeek urteroko hitzordua dute bihar Oñatin

Bigarren itzulia prestatzeko lagunartekoa jokatuko dute Arratek eta Cuatro Rayas Valladolidek



Iaz Azkoagain bete egin zen Arrate eta San Antonio zuzenean ikusteko. | A.E.

**X.U.** | OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloi sailekoak arduratu dira puntako eskubaloia Debagoienera ekartzeaz, dagoeneko derrigorrezko bilakatu den hitzorduan. Hala, ligako bigarren itzulia gertatzen dabiltzan Arrate eta Cuatro Rayas Valladolid taldeak izango ditugu zapatuan, 18:30ean, Zubikoan.

Atseden hartzeko eta datozen hilabeteotan izango dituzten partiduak prestatzeko egunak dira hauek Asobalekoendako; izan ere, otsailaren 5ean itzuliko dira ligara lanera. Lagunarteko partiduaren aurretik, gainera, Eibarko taldeko entrenatzaile Julian Ruizek berbaldia egingo du Oñatiko Unibertsitateko areto nagusian, 11:00etan.

**Eibartarrek lana dute aurretik**

Bigarren itzuliari begira Arrateko gizonek lan handia dute egiteko, lehenengo itzulia atzealdean amaitu dute-eta, hamalaugarren postuan eta sei puntu batuta; hala, kategoriari eusteko lehia bizia izango dute. Euren alde, puntu bat gehiago baino ez dutela aurrerago dauden Guadalajara, Torrevieja, Naturhouse La Rioja eta Alser Puerto Sagunto taldeek. Biharko kontrario Valladolidek, berriz, sailkapenean aurrealdean dabiltzan taldeak harrapatzea izango du helburu, zazpigarren daude-eta.

Aurreko edizioetakoa errepikatzen bada, bihar Zubikoako harmailatik bete egingo dira bi talde horiek ikusteko. Datua: iaz 23-26 galdu zuen Arratek.

FUTBOLA

## Aretxabaleta eta Bergara aurrealdera gerturatzen dabiltza

Joan den astean batutako puntuei esker bi talde horiek beste aurrerapauso bat egin dute aurrealdeko postuetara gerturatzeko –bosgarren dago Aretxabaleta eta seigarren Bergara–. Domekan, Aretxabaletak sailkapenean lekua kendu dion Oiartzunen bisita izango du Ibarran. Bergarak, aldiz, etxetik kanpora jokatuko du oraingoan ere, Tolosan. Mondrak ere balio handiko puntuak batu zituen etxean, Hondarribiaren kontra, eta hirugarren dagoen Anaitasunaren kantxan dute orain hitzordua. Aloñarendako, tamalez, partidu bakoitza ia-ia finala da; aste honetakoa Ondarroan dute.



# EGIN TXOTX! sagardotegietan




## Arratzain

Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa
USURBIL / 943 36 66 63
*www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com*

**Eskaintza**
- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urte osoan irekita.
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik.
- Sagardo botilen salmenta.
- "Tolare" sagardotegia.
- **Txotxetik sagardo ekologikoa.**



## Begiristain

Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
*begiristainsagardotegia@gmail.com*
*www.begiristainsagardotegia.com*

**Eskaintza**
- Urtarriletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatura, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28
*www.iparragirre.com*

**Eskaintza**
- Eguaztenetik zapatura gauez; zapatu eta domeka eguerditan zabalik ere. Beste egunetan kontsultatu.
- Zutik edo eserita.
- Asteburuetan garraio publikoa sagardotegiraino.
- Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. "Zabadiz" banatzaile ofiziala.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

**Eskaintza**
- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **"Tolare" sagardotegia**




## Oiharte

Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
*www.oiharte.com*

**Eskaintza**
- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatura gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.
- **Urtarrilaren 28an irekiera: Lizaso, Zubeldia eta trikitilariekin.**



## Rezola

Santio Zeharra ASTIGARRAGA
608 14 33 32
*rezolasagardotegia@gmail.com / www.rezolasagardotegia.com*

**Eskaintza**
- Astigarraga erdigunetik 100 metrotara.
- Urte osoan txotxetik zabalik.
- Zutik edo eserita.
- Berezitasunak: arkumea eta txerrikumea burduntzian (enkarguz).
- Igande arratsaldetan eta astelehen eguerditan itxita.
- **"Tolare" sagardotegia**



## Unzueta

Zabola z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

**Eskaintza**
- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerditan enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **"Tolare" sagardotegia**

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

# Mikel Ibartzabal: ametsezko munduen eraikitzaile bergararra

## Txotxongilo eta panpinak sortzen ditu Ibartzabalek Urretxun duen Pilpira tailerrean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bolumenezko figurak, hori da Mikel Ibartzabalek (Bergara, 37 urte) egiten duena. Era guztietako panpinak, dekoratuak eta formak egiten ditu Paulo Elkoro bazkidearekin batera duen Pilpira enpresan: erraldoiak, buruhandiak, txotxongiloak, telebistarako atrezzoa... "Adibidez, *Vaya semanita* eta *Wazenmak* -eko dekoratuak guk egiten ditugu", azaldu du Ibartzabalek.

**Txikitatik duen zaletasuna**

Umetatik du Ibartzabalek txotxongiloekiko eta panpinekiko zaletasuna. "Umeak ginela Bergaran hankapalu talde bat sortu genuen, eta orduan hasi zen dena: gure maskarak egiten genituen eta antzezten ibiltzen ginen, kalerik kale", gogoratu du bergararrak.

Gerora, autonomo moduan hasi zen lanean, eta 12 urte eman zituen horrela. Orain dela bi urte, berriz, Elkororen laguntzarekin Pilpira sortu zuen.

Ibartzabalek azaldu du bera eraikitzailea dela. Hori da haren lana, hain zuzen ere: materialean forma eta bolumen ezberdinak eraikitzea.

**Erabiltzen duten materiala**

"Hainbat material erabiltzen ditugu figurak egiteko; baina gehien erabiltzen ditugunak latexa, goma -aparra eta beira-zuntza dira", azaldu du Ibartzabalek, erabiltzen duten materialaz galdetuta.

Egiten dituzten figurak egiteko zenbat denbora ematen duten zehaztea ez dela samurra esan digu: "Adibidez, furgoneta baten tamaina duen barraskilo bat egiteko bi aste eta erdi behar ditugu; eta ur botila baten tamaina duen gitarra-jotzaile bat egiteko ere denbora bera eman dezakegu. Detaileen araberа izaten da hori", dio. Horren harira gaineratu du produktu baten aurrekontuaren %15 bakarrik dela materiala; hortaz, tamainaz oso ezberdinak diren bi produktuk prezio antzerakoa izan dezaketela, horiek egiten pasa duten denbora antzerakoa izan bada. Adibidez, *Katilukadak* antzezlaneko Katilu egiteko bi aste behar izan zituztela azaldu du.

Batez ere, jaietako karrozak eta antzerkietarako dekoratuak egiten dituzte.



Ibartzabal, hainbat lanekin. | A.E.



Mikel Ibartzabal, Olentzero panpina egiten. | PILPIRA



Basajaun da Ibartzabalen beste lanetako bat. | PILPIRA

ESANAK

**"Umeak ginela hankapalu talde bat sortu genuen Bergaran; ordutik dut zaletasuna"**

**"Jendeak dituen ideiak sormen bidez praktikara eramateko ahalmena daukagu"**

MIKEL IBARTZABAL



Aker, Baskoniako ikurra. | PILPIRA

**KutxaGunerako lanak**

Ibartzabalek egin dituen lanen artean daude KutxaGuneko hainbat gai; besteak beste, unibertsoko planetak eskalan egin ditu, eta baita arrokak eta sumendiak ere. Horiez gain, goiko irudietan ikusten denez, buruhandiak, erraldoiak eta hainbat pertsonaia mitologiko egin dituzte: basajauna, esaterako. Baita Baskonia taldeko Aker pertsonaia ezaguna ere.

Azaldu du azkenaldian kultura sailek izan dituzten aurrekontu murrizketak direla-eta lan eskaera gutxiago dituztela. Eskulanaz gain, sormena ere lantzen dute: "Jendeak dituen ideiak praktikara eramateko ahalmena daukagu", gaineratu du artista bergararrak.

### Txotxongiloak, Ibartzabalen beste zaletasun bat

Pilpiran egiten duen lanaz gain, bergararrak beste lagun batzuekin batera txotxongilo ikuskizunak ere egiten ditu. Aitor Ormaetxea Kukubiltxoko kidearekin egin du *Katilukadak* azken lana. "Txotxongilo guztiak nik egin ditut, eta gidoiarekin eta musikarekin ere gu arduratu gara", azaldu du. Zapatuan Bergaran egin zuten emanaldiarekin oso gustura geratu da Ibartzabal.



Mikel Ibartzabal –eskuman– eta Aitor Ormaetxea *Katilukadak* ikuskizunean. | MAIDER ARREGI

# Piano kontzertua bailarako ikasleen eskutik Arrasaten

Arrasate, Bergara, Oñati eta Eskoriatzako musika eskoletako gaztetxoek egingo dute emanaldia

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Bailarako piano-jotzaile gaztetxoak batuko dira gaur, egubakoitza, Amaia antzokian. Ikasturtean zehar ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango dute ikasleek. 18:30ean hasiko da emanaldia eta 47 neska-mutikok parte hartuko dute. Emanaldirako sarrera doan izango da.

Kontzertua Arrasate Musikalek antolatu du eta ondorengo herrietako musika eskoletako ikasleak izango dira: Arrasate, Oñati, Bergara eta Eskoriatza. Piano-jotzaile gaztetxo horien arduradunak euren irakasleak izango dira: Araceli Guridi, Izaskun Barreña, Amaia Urdangarin, Eizabeth Mendiaratz, Mari Karmen Pierrigues, Isabella Blezien eta Rakel Hernandez.

**Ikasleak prestatzea da asmoa**

Arrasate Musikal hainbat urtean dabil jaialdi hori antolatzen, eta ohiko bilakatu dela esan daiteke; asmoa da Andoaingo jaialdian parte hartuko duten ikasleak prestatzea. Andoaingo jaialdia otsailaren 19an eta 20an izango da.



Iazko kontzertuan Amaian batu ziren neska-mutikoak. | ARRASATE MUSIKAL

Jaialdia 18 urtetik beherako piano-jotzaileei zuzenduta dago. Bi modalitatetan parte hartzen dute musikariek: bakarka edo lau eskutara. Adinaren arabera, hiru mailatan sailkatuta egoten dira gaztetxoak.

Aurten, Euskal Herri osotik joandako 871 neska-mutikok parte hartuko dute Andoainen. Ikasle guztiek jasotzen dute diploma eta domina bana parte hartzeagatik. Ea ibarreko ordezkariek zortea duten eta sariren bat lortzeko gauza diren!

**Arrasate Musikalen egitaraua**

Ikasle gaztetxoen piano jaialdia amaituta, Arrasate Musikalek gertu dauka datozen asteetarako egitaraua. Hurrengo kontzertua Leioako Big Band taldearena izango da. Arrasateko, Leioako eta Amurrioko Big Band taldeek trukea egingo dute. Truke programa horren barruan, Leioako taldeak Amaian joko du otsailaren 18an, 19:00etan. Ondoren, Arrasateko taldeak Amurrion joko du.

## Xarmak, Danbakako irabazleak, kontzertua eskainiko du bihar Bergaran

**A.E.** | ARRASATE

Xarmak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean. Danbakako laugarren edizioko irabazleak izan direnen lehenengo kontzertua izango da Debagoienean.

Ondarru eta Berrizko taldea, baina, ez da bakarrik egongo Gaztetxean: Never Surrender eta Dirty Brothers taldeen laguntza izango dute oholtza gainean. Kontzertua Info7 irratiaren alde izango da, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

**Musika estiloak**

Xarmak pop, punk eta rock musika egiten du. Danbaka musika lehiaketan maila ona erakutsi zuten, eta euren *xarmak* sari nagusira eraman zituen. Arrasateko Never Surrender taldeak, berriz, punk eta rock musika egiten du. 2002an sortutako taldeak Zakarrak eta RIP taldeen bertsioak jotzen zituen; eta, gerora, euren abestiak sortu dituzte. Dirty Brothers taldea ere Arrasatekoa da, eta punk-rock musika egiten dute.

**Info7ren aldekoa**

Kontzertua Info7 irratiaren aldekoa izango da. Internetetik FMrako jauzia eman berri du irratiak; antenak, baina, 6.245 euroko kostua du.



Xarmako musikariak Elgetako emanaldian. | GOIENA

## Musika moderno lehiaketa Bergaran

**A.E.** | BERGARA

Bergarako Musika Eskolak, hirugarren urtez jarraian, musika moderno lehiaketa antolatu du. Azkeneko urteetan gero eta eskaera gehiago jaso dute modalitate berriko instrumentuak ikasteko –gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, konboa...–; hala, gazte jende hori motibatu eta herri ezberdinetako ikasleen arteko harremanak sendotu eta bultzatzeko asmoz antolatutako lehiaketa da. Apirilaren 10ean jokatuko da lehiaketa, Zabalotegin.

Izena emateko epea 2010eko urtarrilaren 24tik martxoaren 11ra izango da. Sari nagusia 400 euro izango da; eta ikusleen saria, berriz, 200 euro izango da.



Bebe abeslariak *Y.* azken lana aurkeztuko du Amaian. | GOIENA

## Bebe, Amaia antzokian

Martxoaren 12an aurkeztuko du Bebe abeslariak 'Y.' lana Arrasaten; sarrera 25 euro izango da

**A.E.** | ARRASATE

Ama izan berritan, kantari espainiar ezagunak *Y.* lana aurkeztuko du bere kantu mitikoekin batera, disko berria prestatzen dabilen bitartean. Martxoaren 12an izango da emanaldia, 20:00etan. Sarrera 25 euro da. Beberen kontzertua apirilera bitarteko Arrasateko Udaleko kultura egitarauaren ekitaldi nagusietako bat da.

Urtebete eskas da Bebek *Y.* azken lana argitaratu zuela. *Pa' fuera telarañas* lehenengo disko arrakastatsuaren ondoren, tarte luzea egin zuen lanik argitaratu barik abeslariak.

Hirugarren diskoaren zain egoteko, berriz, haren zaleek ez dute horrenbeste itxaron beharko. Izan ere, dagoeneko hasi da lanean hurrengo diskoan.

**Phil Manzanerak ekoiztuko du**

Hirugarren diskoa Phil Manzanera britainiarrak ekoiztuko du. Bebek adierazi du lan berria "basatiagoa" izango dela, ama izan ondorengo jarrera ei da hori. Ama izan ondoren bizi izan dituen esperientzia berri horiek kontatuko ditu Manzanerak hirugarren disko horretan.

**Antzerki ikuskizunak**

Bestalde, hainbat antzerki saio eskainiko dituzte otsailean eta martxoan Amaia antzokian. Otsailaren 20an, esaterako, *Historias canallas* Kunka taldearen lana izango da, 19:30ean –gazteleraz–. Otsailaren 6an, Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garaik *Baginaren bakarrizketak* eskainiko dute, euskaraz, 19:30ean.

## Jokin Labaien Beterriko bertsolari txapelketan

**A.E.** | BERGARA

Joan den astean hasi zuten Beterriko IV. bertsolari txapelketa. Hain zuzen, Agedadeun eta Donelutxi taldeek jokatu zuten lehenengo kanporaketa. Donelutxi taldean Ainhoa Agirreazaldegi bergararra dago.

Oraingoan, Doneztebe eta Donelontxo taldeek neurtuko dituzte indarrak. Donelontxo taldean Jokin Labaien arrasatearra dago. Gainerako taldekideak hauek dira: Ander Lizarralde eta Unai Muñoa. Saioa gaur izango da, egubakoitza, Asteasuko Aitzondo elkartean, 20:30ean. Afaria izango da, 20 eurotan.

Txapelketako finala otsailaren 12an jokatuko dute, Villabonan, 20:30ean.

# Jatetxe Gida



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



## PIldain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

**Eskaintza**
- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

**Astelehenetan itxita**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

**Maddi Urkia | Ikaslea**

# "Nikaraguatik gurera ekarriko nuke han duten poztasuna eta lasaitasuna"

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

22 urteko oñatiarra da Maddi Urkia. Haur Hezkuntza ikasi zuen Eskoriatzan eta orain Psikopedagogia egiten dabil Donostian. Nikaraguan egin zituen praktikak Urkiak; hango egoera ikusita, beste lagun batzuekin batera *Eta guk zergatik ez* proiektua sortu du.

***Eta guk zergatik ez* galdetu zenioten zuen buruei?**

Bai, guk praktikak egin genituen eskola pribatua izan arren (Ebenezer, eskola ebangelista), urte osoko kuota eta matrikula umeko 30 euro besterik ez da. Hortaz, pentsatu genuen bakoitzak ume bati eskola ordaintzea. Gainera, familiakoek eta lagunek ere lagundu digute; hala, 40 ume dira hartu ditugunak.

6-12 urte bitarteko umeak dira, eta guztiak analfabetoak. Diriamba herrian izan ginen, hango auzo baztertuenean.

**Beka hauen bitartez ume horiek eskolara joateko aukera izango dutela ziurtatzen duzue.**

Bai, hori da. Guk argi utzi genien gurasoei dirurik ez dutela ikusiko. Jasoko duten laguntza izango da ume horiek urte osoko eskola ordainduta izango dutela.

Orain arteko jarrera ona izan da. Izan ere, gu beldur ginen haur horiek eskolara joango ote ziren; izan ere, kasu batzuetan, gurasoek lanera bidaltzen dituzte. Baina bai, joan dira eskolara. Ikasturtea otsailetik abendura bitartean izaten da. Norbaitek laguntza eman gura badu, proiektuari buruzko informazioa *http://etagukzergatikez.wordpress.com* atarian lor dezake.

**Bi hilabetez izan zineten Nikaraguan. Nolako esperientzia izan zen?**

Polita eta ezberdina era berean. Gu praktiketan geunden; eguneko bost ordu egin behar genuen lan. Baina hango errealitatean sartuz gero... arratsaldeetan ere umeekin egoten ginen. Inguruko auzoetan egon ginen, bekak eman dizkiegun haurrak hautatzen eta ezagutzen.

**Zer ekarriko zenuke Nikaraguatik gurera?**

Poztasuna eta lasaitasuna. Han ez dabiltza egun guztia alde batetik bestera, gu bezala. Lasai bizi dira eta, askorik ez eduki arren, dutena banatu egiten dute.

**Zeuon asmoa hemengo haurrei hango errealitatea erakustea ere bada.**

Bai; Txantxiku ikastolarekin elkarlanean hasi gara. Asmoa da hemengo umeei hango errealitatea zein den erakustea, sentsibiliza daitezen.

**Praktika hauek bidaiatzeko aukera eman dizute. Gustuko duzu bidaiatzea?**

Bai, gustuko dut, baina, egia esan, orain arte ez dut askorik bidaiatu. Gehien gustatu zaidan lekua Nikaragua bera izan da. Oso leku polita da.

Bestalde, Polonia ere gustuko dudan lekua da. Orain, berriz, Ukrainara bidaiatzeko ilusioa daukat.

**Nikaraguara berriro joateko asmorik baduzu?**

Bai, beti esaten dugu itzuli behar dugula... eta, orain, ikasketak amaituko ditugula kontuan hartuta, denbora luzeagoa izango dugu.

**Haur Hezkuntza ikasi duzu. Umeak gustuko dituzun seinale!**

Betidanik gustatu izan zaizkit umeak. Etxean esaten didate txikitan galdetzen zidatenean handitan zer izan gura nuen, *irakasle* erantzuten nuela. Gustuko dut haurrekin lan egitea eta gozatu egiten dut. Pazientzia behar dela esaten da, baina umorea ere behar da.

**Bitxigintza da zure beste zaletasun bat. Jarraitzen duzu horrekin?**

Eskulanak oso gustuko izan ditut betidanik. Bitxigintza ikastaro baten ibili nintzen bi urtez, baina orain, denbora faltagatik, nahiko utzita daukat.

Egin izan ditudan gauzak erabili baino gehiago eman egiten ditut.

**Kafetegi batean ere egin izan duzu lan. Kafea hartzera zoazenean kontuan izaten duzu nola ateratzen duten kafea?**

Kafea nola ateratzen duten begira ez naiz egoten; bain zerbait hartutakoan edalontziak barrara itzultzen ditut. Hori, adibidez, egiten dut.



Maddi Urkia, Oñatiko unibertsitatean.

A.E.

### MARRA AZKARREZ

**Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Psikopedagogia.
**Film gustukoena:** *El pianista*.
**Liburu bat:** *Summerhill*.
**Amets bat:** Pozik bizi izatea.
**Zaletasunak:** Bidaiatzea, marraztea eta bitxiak egitea.
**Bizi izateko toki bat:** Oñati.
**Bidaiatzeko herrialde gustukoena:** Nikaragua eta Polonia.
**Parranda egiteko herri bat:** Oñati, Errosaixo Bixamon egunean.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Familia bakarreko etxea salgai 8.000 metro koadroko lursailarekin. Prezio murriztua.636 94 81 31

**Aramaio.** Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 metro koadro. Garaje itxia. Ganbara. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita Gabirel kalean. 177.300 euro. 656 73 13 21

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua. Interesatuok deitu zenbaki hauetara:620 59 86 55 edo 658 72 52 70

**Bergara.** Martzial Agirre kalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbarearekin. 608 15 45 25.

**Oñati.** 84 metroko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Gainera 32metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposean dago, denda eta ikastetxea ondoan baitauzka. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago.678 71 36 97

**Oñati.** 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otaduy kaleko 13.ean, 2. solairuan. Sukaldea, hiru logela, komuna eta egongela. Dena jantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro.659 05 11 57 edo 630 52 17 89

**Oñati.** 60 metroko etxebizitza salgai San Loretzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean.699 78 47 49

**Oñati.** Kalebarrian 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665 71 77 98

**Oñati.** Erdialdean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta garbigela-trastelekua. Oso egoera onean dago. Garajea aukeran. Harremanetarako idatzi *mezua bzubia@yahoo.com* helbidera edo deitu telefonora:659 53 87 62

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Altamiran, Jose Luis Inarra kalean. Interesatuok deitu zenbaki honetara:639 96 01 21

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Berokuntza zentrala, bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. 450 euro.628 22 45 09

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela eta trastelekua. Interesatuok deitu zenbaki honetara:616 92 55 06

**Debagoiena.** Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 22 09 38

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Deitu 650 56 62 06 telefonora

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Hiru logelako etxea errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654 24 13 27

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 86 05 49

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Erguin aldean etxebizitza osatzeko. Ignacio. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 59 73 62

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Ordaintzeko arduratsua naiz.Deitu 666 21 88 95 edo 943 79 74 13 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguin auzoan. Hilean 280 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara:648 19 10 38

